

...eta!  
**K**itto!

2018-III-2

1048 zkia.



Martxoaren 8a  
**Iragana ispilu  
etorkizuna  
irudikatze**



**ZERBITZUA / KUDEAKETA - ADMINISTRAZIOA**

*30 urte baino gehiagoko esperientzia*

**943 200 358**

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ARRETA PERTSONALA ETA TELEFONOZ 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30etara

martxoak 7  
martxoak 8  
martxoak 9

eguztena  
eguna  
barixakua

# IV. GILDA

## LEHIAKETA

## SARI BI:

Herritarren saria: **150€**

Tabernetan bozketarako kutxak eta orriak egongo dira.

Epaimahaiaren saria: **150€**

**EPAI-MAHAIKIDEAK:**

Mireia Alonso - Josu Mugerza - Ruben Etxaniz



**AKARA**  
Untzaga 4



**ALBERTO**  
Juan Gisasola 10



**AMESTI**  
Ziriako Agirre 2



**AMETSA**  
T. Etxebarria 2



**ARKUPE**  
Isasi 2



**ASTELENA**  
Estaziño 7



**BACOLEKU**  
Urkizu 11




**BAISI**  
Urkizu 11



**BIRJIÑAPE**  
T. Etxebarria 16



**CEPA**  
Urki 29



**CHIC**  
Calbeton 9-11



**DEPOR**  
T. Etxebarria 16



**DOS DE MAYO**  
T. Etxebarria 19



**GURIDI**  
Untzaga 3



**KONTENT**  
Ego Gain 6



**KOSKOR**  
Calbeton 6



**KULTU**  
Zuloagatarren 3




**LAU BIDE**  
Ziriako Agirre 1



**MAIXA**  
Calbeton 8



**ONGI ETORRI**  
T. Etxebarria 21



**SLOW**  
Ego Gain 10



**SU BEROA**  
Bista Eder 11



Bozketan parte hartzen dutenen artean  
**KANTABRIA** jatetxean bi lagunendako menu berezia  
zozketatuko dugu.

**Animatu zaitetz eta parte hartu!!!**



kantabria



Laguntzaileak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – Tortura Eibarren: 48 testigantza –

Duela hilabete gutxi eta Eusko Jaurlaritzak horrela eskatuta, Pako Etxeberrria mediku forentseak gidatutako ikerketa taldeak txosten bat argitaratu du. Bertan, azken 50 urteetan E.A.En izandako milaka tortura kasu argitara eman dituzte, Nafarroa kontuan izan gabe. 4.113 kasu egiaztatu dituzte. Ez dira guztiak, beraien hitzen arabera, errolda hori "lagin" bat baino ez baita.

Datuok ezagutzera eman ondoren, oso esanguratsua izan da alderdi politiko eta erakunde batzuek egin dituzten adierazpenak. Lotsagabeki, torturatuak eginiko aitortzak zalantzan jarri edo zuzenean ukatu baitituzte.

Dena dela, torturaren errealitate gordina ez dugu, bere osotasunean, inoiz ezagutuko. Sufrimenduaren argazkia ez da erabatekoa izango, ez dagoelako horretarako benetako asmorik eta denborak aurrera egin ahala gero eta zailagoa izaten delako testigantzak jasotzea. Gainera, torturatuak oso laza egiten zaie momentu horiek gogora ekartzea.

1963tik 1980 urtera bakarrik 400 eibartar baino gehiago atxilotu zituzten. Hauetatik 60 epaitu eta kondenatu egin zituzten "Tribunal de Orden Público" delakoaren eskutik (egungo Audiencia Nacionalaren aitzindaria). Zenbaitek torturak jaso izana salatu zuten, baina, belduraren beldurrez, beste hainbat isilik geratu ziren.

Euskal Memoria Fundazioa ikerketa lan txukuna egiten ari da, atxilotuekin hitz egiten. Orain arte, azken hamarkadetan torturatu zituzten 48 eibartarren testigantzak jaso dituzte. Baina errealitatea oraindik askoz gordinagoa da eta lan horretan jarraitzen dute, testigantza gehiago lortze aldera.

Euskal Herriak bere autodefentsarako erabili duen bortxa etengabe aipatzen duten horien aurrean, gure zeregina da torturaren salaketa areagotzea eta gertatutakoaren aitortza, erreparazioa eta berriro gertatuko ez den bermea lortzearen alde tinto lan egitea.

Eibarko Kalera Kalera Taldea

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MAKALKI.**- Erraz gaixotzen dena. "Umetan makalkixa izan zan".

**MAKATZ.**- Basoko fruta. "Egarririk itto biharrian nenbillela, makatz arbola bat topau neban". Baso-madari. "Makatzak gozuen arduakin eta azukriakin egositta".

## astean esanak

"Pilota lehen askoz aurrerago jokatzen zen: txapa gaineke asko egiten zen. Orain, gero eta atzerago, eta ez da ia txapa gaineke egiten. Pilotariak hobeto ikusten zuen pilota: gora joaten da orain, lehen kantxaren erdian ibiltzen zenean. Orain futbolearen bezala egoten da jendea frontoian. Eibarren, lehen, jendea zutitu egiten zen tantoa egiten zenean, eta txaloa jotzen zuten, emozioz. Astelena bi pisu ditu: lehenengora adituak joaten ziren, pilotariaren estiloari erreparatzeko. Eibarko pilotalekuan exijitzen zitzaion gehien pilotariari, frontoi onena zelako"

(MIGUEL GALLASTEGI, PILOTARI-OHIA)

"Nik orain ulertzen ditut guztiak apurtu nahi zuten feministak, ilea moztu, depilatzeari ezetz esan eta titzorroak erretzen zuten haiek. Naomi Wolf idazleak ere argi esaten zuen dieta zela emakumeen lasaigarri politikoa. Emakume zuria, gaztea eta ederra da imitatu beharreko eredu, eta bide horretan xahutzen dugu dirua, energia eta burua. Gutako bat bere feminitatearekin harro badago, orduan borrokatu dezake bere eskubideen alde, baina bere irudiarekin arduratuta dagoen bitartean -eta horrela nago ni ere- beste guztiak garrantzia galtzen du, baita gure eskubideen alde egiteak ere. Borroka seguratasuna behar du"

(LETICIA DOLERA, AKTOREA)

"Gaizka Villate Espainiako telebista publikoarentzat Euskal Herrian lan egiten duen kazetariak jakinarazi du TVEk zentsuratu egin duela. Uztailaren 10ean, ETAK hildako Miguel Angel Blanco PPko kidearen omenaldiaren berri eman zuen Villatek. Ekitaldi hartan Bilduk parte hartu zuela nabarmendu zuen eta, horren ondorioz, zuzenekoetan aritzeko debekua jarri diote. Haren nagusiek esan dutenez, arrazoia ez da ideologikoa izan; haren janzkera desegokia delako hartu omen dute erabakia. Lortu dute, gainera, helburua: gutxi direlako, RTVEri dagokionez, haren saioak edo albistegiak ikusteari uzten diotenak"

(JOKIN LABAIEN, KAZETARIA)



ENRIKE SOSOLA

### Antolinen ortua

Amañakoa da gure supergizona. Jubilatzen eta ustekabeen alargundu. Antolin ipurterrea aspertu egiten da tabernazuloan eta preso sentitzen etxean. Korrikalaria belaunek "kitto" esan zioten arte. Koruan ere badabil, baina ez da nahikoa, zerbait gehiago behar eta ortua jartzea bururatu zitzaion. Terrenoa begiekin jo eta ekin zion lanari. Bai lur eskasa gero. Lur antzua. Hango harri eta hango eskonbroa. Obrako hondakinetatik ezin besterik espero. Baina burugogorra da Antolin. Harriak apartatu zituen neke handiz. Sasiak moztu eta saila garbitu. Belar txarrak kendu. Harmailezko bidea egin aldapan gora eta-behera ibiltzeko. Euri-ura jasotzeko sistema eraiki. Tesnak gordetzeko aterpetxo. Lurra goxatu ximaurrarekin eta landareak ondo gobernatu ondoren hara miraria: baratzea. Hango barazki, sendabelar eta frutarbolen edertasuna. Ikusgarria benetan. Gorazarre Antolin zuri, eta zure modukoei. Ez baita bakarra. Hainbat dira bazter ahaztuetan ortuxoa jarri dutenak, bere kasa, inolako laguntzarik gabe. Baina hori ez da plana, jakina. Ortularitzak onurak baino ez dakarrelako zahar zein gaztearen bizitza-kalitateari. Hondatutako parajeak berreskuratuzko aukera ere ematen du, Antolinek erakutsitako modura. Beraz, Eibar gero eta zaharrago honetan, gogoia duenari gauzak erreztuz aisialdirako udal ortuak jartzeko garaia iritsi zaigu. Izan ere, ez gara denok superheroiak izateko jaio.

## "Emakumien eskubidiak lan merkatuan" mahai-ingurua antolatu dabe sozialistak

Datorren barixakurako mahai-ingurua antolatu dabe Eibarko Sozialistak, Egotik Ekora taldiarekin alkarlanian. "Emakumien eskubidiak lan merkatuan" izenburuko saiua herritar guztiendako zabalik egingo dabe, 18:30xetan, sozialisten Untzagako egoitzan ("Casa del Pueblo" edo Herri-xaren Etxian). Mahai-ingurua berba egiteko gonbidatuak Alfán biharra egin eben Carmen Retenaga eta Ana Alberdi, Monroen jardun eban Itziar Badiola (Monroeko langileohia), Raúl Arza UGT sindikatuko ordezkaria eta Loli García CC.OO. sindikatuko ordezkaria dira.



asteko  
**3.481**  
 datua

*etxetan pertsona bakarra bizi da eta famelixen batz besteko tamaiñuak (2'3) behera egin dau. Guraso bakarrek famelixak, barriz, %16xa osatzen dabe gaur egun; 2011an, Eibarko 470 etxetan eguazen guraso bakarrek famelixak eta %4'1 osatzen eben. Datuak aste honetan aurkeztu daben Eibarko Gizarte Diagnostikuan jasotakuak dira.*

## Primerako giruan ospatu zan Eibar-Sahara Eguna

Aurreko zapatuan Untzagak hartu eban egun osoko jaialdixarekin, edarto ospatu zan Eibar-Sahara Eguna. Goizetik hasitta, gaberaño iraun eban jaixak eta, eguzkixa lagun, jende asko animau zan ekitaldixetan parte hartzera. Eibar-Sahara Elkarteak eta Inkorpore Coaching firmak alkarlanian antolatu eben jaixaren harira bigarren eskuko liburu

azokia, txosna, zuzeneko musikia eta herri-kirolak, denetarik egon zan. Aita-semien arteko aizkora desafioan azken orduko kanbixua egin eben eta, azkenian, talde batian Hodei Ezpeletak eta loritz Gisasolak jardun eben eta beste taldian, barriz, Ernesto Ezpeleta "Bihurrik" eta Zelai II.ak. Alde guxtirekin, proba gaztiak irabazi eben.



Ohiko liburu-azokiarekin batera, aizkora-desafioa be egon zan oinguan, gaztien garaipenarekin. **Maialen**

Fernando Solana



Ekhi Belar



Ana Dodero

*Toribio Etxebarria  
be zuriz jantzi  
zeban edurrak.*  
Juanma Cano



## autuan

### ...ETA KITTO!-REN URTEKO BATZARRA

Martxuaren 15ian egingo dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusixa alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartearen), 19:00etan lehen deialdixan eta 19:30xetan bigarrenian. Batzarrarian 2017ko gestio-balantzea, 2018rako egitasmuak, bazkide kuotak eta aurrekontuak eta zuzendaritza barrixaren hautaketia landuko dittue eta bazkide guztiak dagoz deittuta, ahal izanez gero, billerara agertzeko.

### IBILGAILUEN GAIÑEKO ZERGA

Martxuaren 9xan amaittuko da 2018. urteko trakziño mekanikoduneko ibilgailuen gaiñeko zerga ordaintzeko epia. Helbideratuta daguazten errezibuz titularrak emondako kontuan kargauko dira borondatez pagatzeko azken egunian (martxuaren 9xan) eta helbideratu barikuak, barriz, Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco Sabadell-Guipuzcoano, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, Banco Santander, Bankoa, Nafarroako Rural Kutxa eta La Caixan pagau leikez edo, nahixago izanez gero, internet bidez be ordaindu leike, eibar.eus helbidian ("Nire ordainketa" atalian).

## Edurrak irudi edarrak laga deskuz

Aspaldittik ikusten ez zan moduan bota eban edurra martitzen gabian eta eguazte-nian, egunak argittu orduko herriko teillatuak ez eze, kale eta bazter guztiak zuri-zurixak topau genduaz. Batez be errepidian egindako kaltiak albo batera lagata, edurra argazkixak egittuko primerako aitzakixa izan zan askorendako eta oso irudi polittak jaso dittugu. Aldizkarixan danak kaleratzeko tokirik ez dakagu, baiña interneten ikusgai ipiñi dittugu, etakitto.eus orriko mediatekan.

- SUKALDEAK
- BAINUAK
- ETXEKO ALTZARIAK



**ASKETA**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA  
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA  
**%10eko deskontua**  
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan

## herriko kaleei begirada



## ERREKATXU

egilea:  
JAVI ZABALA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean

## Herriko Gizarte Zerbitzuen egoeria jasotzen daben ikerketia aurkeztu dabe

Martitzen eguardixan aurkeztu eben "Eibarko Gizarte Diagnostikoa" ikerketa-lana udaletxeko pleno aretuan Idoya Sarasketa Gizartekintza sailleko ziñegotzixak eta ikerketa egin daben IKEI aholkularitzako ordezkariak. Presentaziñuan esandakuaren arabera, "Eibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak gehixen arduratzen detsen zazpi giza-esparruetan analisi sakon bat egittia izan da ikerketaren helburua". Aittatutako esparru horren artian gizarte-bazterketia, inmigraziñua, mendekotasunak, desgaitasunak eta genero-berdintasuna dagoz, bestiak beste. Ikerketia egitteko orduan, gizartiar lotutako arlo diferentietan biharrian diharduen eragi-

le eta erakundiak parte hartu dabe. Ikerketatik, konklusio modura, hainbat ideiak urten dabela azaldu eben eta, kezka nagusixeri erantzun egokixa emoteko asmuarekin, ikerketa egitterakuan antzeman dittuen premiña eta hutsuniak betetzeko proposamenak be jaso dittue. Zahartzarua eta bakardadia, mendekotasunak, gizarte-bazterketia, arazo ekonomikuak, substantzia arriskutsuen kontsumua saihestia eta andren eta gizonen arteko bardintasuna moduko gairak dira jendia gehixen kezkatzen dabena. Aste honetan aurkeztu daben ikerketa-lana datozen urtiotan Gizartekintzak landuko dittuan proiektu eta beste-lakuendako oiñarrixa izango da.



IKEI aholkularitzako ordezkariak eta Gizartekintza sailleko ziñegotzixa aurkezpenian.



## Euskeraz Primeran! kanpaiña neguko beherapenen azokan izan da

Azken urtietako ohitturiari jarraituta, "Euskeraz Primeran!", denda eta tabernetan euskeriaren erabilleria areagotzeko kanpaiña aurkeztu astian Toribio Etxebarria kalia egindako neguko beherapenen azokan egon da. Arduradunen berbetan, "oinguan bizitzako alor ezberdiñak irudikatzen zittuan murala eruan dogu azokara eta, gerturatzen ziraneri, euren ustez euskeria gehixago nun erabili biharko leukien galdetzen ibilli giñan, jarraixan horren arabera pegatinak ipintzeko. Trukian erosketarako poltsa jasotziaz gain, Eibar Merkataritza Gune Irekiak emondako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketan parte hartu eben eta irabazlia Widad Bensliman izan zan. Ongi Etorri Berbetan-era programako kidia da Widad eta, hortaz, euskeriarekin dakan konpromisua oso argixa da, astian behin ...eta kitto!-ra juaten da-eta, euskeria eta euskal kultura ezagutzeko asmuarekin. Zorionak!

## Gardentasunari lotutako triptikuak

Eibarko Udalak 13.000 triptiko baiño gehixago banatuko dittu etxe guztietan, gardentasunarekin lotutako alderdi eta datu inportantienak eza-gutzeria emoteko. Intereseko informaziñuarekin batera, bi QR kode dagoz, nahi dabena eibar.eus/eu/gobernua-zabalik eta noradoaznirezgak.eibar.eus atari berrixetara zuzenian sartzeko aukeria izan deitan.



## Martxuaren 8xaren inguruko ekitaldixak antolatu dittue Museuan hillabete osorako

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira martxorako egitarau zabala preparau dabe Eibarko Armagintzaren Museuan. Martxuaren 10ian "Ze nolako lana emakumeena!" izenburuko taillarra egingo dabe, 17:00etan. Beste batzuetan bezala, taillarra belaunaldi deberdiñen arteko topaketia izatia nahi dabe eta, beraz, ume eta helduak izango dabe parte hartzeko aukeria. Elebiduna izango da eta 25 lagunendako tokixa eskinduko dabe. Izena emon nahi dabenak egunian bertan izango dau aukeria, museuan, 16:00etatik 16:30xetara. Sarrera duan izango da.

Hillak 15ian, barriz, "Askatasunerako bi gupil" hitzaldixa emongo dau Itziar Alonso-Arbiolak, 19:00etan Museuan. Andra txirrin-dularixak historixan bizi izan dittuen egoerak eta beste kontu batzuk azalduko ditte hizlarixak. Saiua euskeraz egingo da eta sarre-



ra duan izango da. Eta bi egun geruago, 17xan, Museuan urte osuan ikusi leikian erakusketia ezagutzeko dohaiñeko bisita gidatuak egingo dittue, 17:00etan euskeraz eta 18:30xetan gazteleraz. Interesa dakanak aurretik izena emon biharko dau, 943 708446 telefonora deittuta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita.



## Etxegabiendako neguko protokolua diseiñatzia eskatu dau EH Bilduk

Azken egunotan egin daben eguraldixa eta hotza ikusita, Eibarren kalia bizi diraneri lotarako aterpia eskintzia premiñazkua topatzen dabe EH Bilduko ordezkariak eta, egin daben hotza dala-eta arduratuta, aurten bertan hasi eta datozen urtiotarako protokolua idazteko eskatu detse alkatiari eta Gizartekintzako ziñegotzixari. Azaldu dabenez, eskaeriaz gain proposamen zihetza

## Pagatxa alkartiak bazkarixa antolatu dau 25. urteurrena ospatzeko

Aurten 25 urte beteko dira Pagatxa emakumien alkartia sortu zala eta, hori ospatzeko, urtian zihar antolatzen dittuen ohiko jarduerekin batera, berezixaguak diran beste batzuk be egingo dittue. Bixar bertan 180 bazkide alkartuko dira, Untzagan talde argazkixa egin eta, ondoren, Untzaga Plaza hotelian bazkaltzeko. Bazkalostia girotzeko, barriz, 25 urtiotako irudixekin osatutako bideua proiektauko dabe eta, plana biribiltzeko, Las Kapritxosas paillazuak (*goiko irudixan*) ikuskizuna eskinduko dabe.

Ohiko programaziñuaren barruan, bestalde, gaur 19:00etan Izaskun Rodriguez Elkorok gidatuko daben "Criadas y señoras" filmaren inguruko zine-foruma egingo da Portalean. Eta astelehenian, barriz, Leticia Martínez Alcocerren eskutik Teresa de Jesusi eskindutako bideo-forumaren bigarren zatixa egingo da, 18:30xetan Portaleko ikastaro gelan.



egin dabe: "Alkatiari UNI-Eibarrekin hitzarmena siñatzeko gonbidapena egin detsagu, herrixan kale gorrixan daguzenak gabak han pasatzeko aukeria izateko". Proposamenak aurrera egin ezker, kalia daguzeneri informaziñua emoteko eragillerik aproposenak Udaltzaiñak izan leikiazelatza pentsatzen dabe.

**martxoak 5**  
astelehena

Zatoz **Bilduma Berria** ikustera

Zain gaituzu!!

Errebal, 14

**el vestidor**

688 811 434  
eibar@elvestidor.eu

## HAIZE AROA ELKARTEA

### Helburuak

Haize Aroa elkarteak Aroa ume eibartarrari laguntzeko sortu zuten. Zazpi urtetan diagnostikorik gabe egon eta gero, egindako proben ostean Coffin-Siris sindromea duela diagnostikatu zioten Aroari. Gaixotasun genetiko oso arraroa da eta atzerapena eragiten du adimen mailan, hazkuntzan eta mugikortasunean. Horrelako 100 kasu inguru daude. Gaixotasun ezezaguna da, ikerketa gutxi egin da horren inguruan eta Aroari laguntzeko modua logopedara eta fisioterapiara eramatea da.

### Ekintza nagusiak

Gaixotasun horri aurre egin eta Aroari laguntza eskaintzeko asmoz, bazkari solidarioak eta beste era bateko jarduerak antolatzen dituzte. Esate baterako, Haize Aroa elkarteak bazkari solidarioa eta hainbat ekintza egin zituen Eskozia La Brava lagunartearekin batera urtarrilaren 13an, Eibar KE eta Atletico Madrilaren arteko partiduaren aurretik.

*E-maila:* [gorkaaroo@gmail.com](mailto:gorkaaroo@gmail.com)



*Jende ugari bildu zen urtarrilean Udaletxeko arkupeetan Aroari laguntzeko antolatutako bazkarian.*

## HIRUKIDE ELKARTEA

### Helburuak

Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioa da. 1999an sortu zen, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarten batasunaren ondorioz, kolektibo honen eskubideak esparru guztietan defendatzeko. 2002an Herri Onurako elkarte izendatua, egun 8.500 familia bazkide baino gehiago ditu (46.000 bazkide), eta horiei guztiei zerbitzu, abantaila eta jarduera ugari eskaintzen dizkie. Orain dela gutxi Eibarren izan dira elkartearen gorabeherak azaltzen. Hirukidek kide ugariko familien batasuna aldarrikatzen du, euren ahotsa gehiago entzungo delako horrela.

### Ekintza nagusiak

Hirukidek hainbat jarduera, zerbitzu eta abantaila eskaintzen dizkie bazkideei:

- Aholkularitza eta informazio integral etengabea.
- Prestakuntza-zerbitzuak.
- Aisialdiko jarduerak eta txangoak.
- Deskontu pribatuak.
- Jarduera bereziak...

*Telefona:* 945 25 36 02  
*E-maila:* [hirukide@hirukide.com](mailto:hirukide@hirukide.com)  
*Webgunea:* [www.hirukide.com](http://www.hirukide.com)



*Donostian egindako jaialdiaren argazkia.*



Udaleko Ingurumen arloak, Margube Aholkularitza eta Formazio enpresarekin lankidetzan, hainbat baliabide ipini ditu herriko enpresen esku, indarrean dagoen ingurumen-araudia ezagutzera eman eta hori bete dezaten laguntza emateko. Martxan ipini berri diren baliabide eta zerbitzuen berri emateko, enpresentzat bereziki antolatutako aurkezpena egin zuten udaletxean otsailaren 16an. Izan ere, bizitzako beste esparru batzuetan bezala, enpresa munduan ere berebiziko garrantzia dauka ingurumena zaintzeko.

# Enpresa eta ingurumena uztartzeko baliabideak esku-eskura

**H**ilabete honetan aurkeztu dituzten ekimenak abian ipini aurretik, Eibarko enpresetan ingurumen-eskakizunak betetzen ziren ala ez ikusteko azterketa lana egin zuten iaz Ingurumen arloak eta Margubek elkarlanean, egoe-raren diagnostikoa egiteko. **Jon Iraola zinegotziak eta Vanesa Larrabide arduradun teknikoak** azaldu digutenez, *“orohar, Eibarren lantegi txiki asko daude eta, kasu gehienetan, ingurumenak ez die arduraz berezirik eragiten. Horrekin batera, ingurumenari lotutako arauak nahiko ezezagunak egiten zaizkiela ikusi dugu. Beraz, arlo honetan formazioa eta kontzientziazioa falta dira eta, hori aldatzeko asmoz, urte honetarako hainbat ekimen abiaraztea erabaki genuen”*.

Hartutako neurrien artean, Laguntza Teknikoko Zerbitzua (S.A.T ingurumena) sortu dute, enpresek ingurumenari buruz izan ditzazketen zalantzak argitzen laguntzeko eta inguru-

men-arazoak kontsultatzeko. Doako zerbitzu bat da eta galdera edo zalantzak idatziz (SAT.ingurumena@gmail.com) zein telefonoz (688 680 545), 09:00etatik 13:00era, helarazteko aukera dago. Udalaren webgunean, Ingurumen sailari eskainitako atalaren barruan (eibar.eus/eu/udala/sailak/ingurumena/enpresa-eta-ingurumena) zerbitzuari buruzko informazioa, harremanetarako zenbakia, posta elektronikoa, ordutegia... ipini dituzte esku-argarri.

Zerbitzua oso erabilgarria izango dela pentsatzen dute: *“Diagnostikoa egiteko enpresetan ibili ginenean zalantza asko zituztela ikusi genuen: olio zikindutako trapauek nora bota behar dituzten, enbalaje-*



*Gida paperean argitaratzeaz gain, internetetik jaisteko aukera dago. Iraolak eta Larrabidek enpresek baliabideak erabiltzea espero dute.*

*tetzen lagunduko diena”*. Gidan enpresentzat bereziki erabilgarriak izan daitezkeen edukiak bildu dituzte eta, horrez gain, enpresak berak autodiag-

*mintza nola erabili nahitaez jakin beharra dago, gaur egun hori delako enpresek Eusko Jaurlaritzari ingurumen arloko datuak bidaltzeko sistema bakarra. Honek interes handia izatea espero dugu, enpresa askotan sistema ez dutelako gutziz ezagutzen. Sistemaren barruan dauden aplikazioak nola erabili irakatsiko zaie ikastaroan parte hartzen dutenei”*. Ikastaroa bi egunetan, martxoaren 16 eta 23an emango dute. Eta hirugarren ikastaroa Ingurumen-kudeaketa sistemari buruzkoa izango da: *“Enpresei ingurumen kontuetan hobera egitea ahalbidetzen duten ekimen eta jardueren berri eman-goa zaie, horiek martxan ipintzeko aukera izan dezaten”*. Apirilaren 13 eta 20an izango da ikastaroa. Izena emateko edo informazioa eskatzeko l.susilla@margube.com helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 688 829 153 / 943 202 818 telefonoetara deitu.

## BALIABIDEAK

– **Laguntza Teknikoko Zerbitzua** (zalantzak argitzeko eta kontsultak egiteko doako zerbitzua). Telefona: 688 680 545 (09:00/13:00era). E-maila: SAT.ingurumena@gmail.com.

– **Enpresentzako Ingurumeneko Legegintza Gida**

– **Prestakuntza-ikastaroak.**

**Informazio guztia interneten dago:**

[eibar.eus/eu/udala/sailak/ingurumena/enpresa-eta-ingurumena](http://eibar.eus/eu/udala/sailak/ingurumena/enpresa-eta-ingurumena)

*rako plastiko handiekin zer egin behar zuten... zerbitzua ematen duen adituak horrelako kontuak argitzen lagunduko die, nahikoa izango da telefonoz deitu edo mezua idaztea”*.

*Horrekin batera Enpresentzako Ingurumeneko Legegintza Gida prestatu dute. Iraolaren berbetan, “diagnostikoa kontuan hartuta, bereziki Eibar-ko enpresentzat pentsatuta sortutako gida da. Kontsultarako oinarritzko liburuxka da, errez erabiltzeko modukoa, eta enpresei lege-eskakizunak be-*

*nostikoa egiteko hainbat klabe ematen ditu, “horrela zer hobetu behar duten ikusteko”*.

Eta doako prestakuntza-plannaren barruan hainbat ikastaro eskainiko dituzte, doan. Lehen ikastaroa Ingurumenari lotutako lege-baldintzen ingurukoa da eta gaur bertan hasi da. Bigarrena, berriz, IKS-eem aplikazioaren erabilerari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa da eta martxoaren 16an eta 23an emango dute.

Antolatzaileek azaldu digutenez, *“IKS-eem izeneko erre-*



# moda



# arkitektura

*mikel solas* -MODA DISEINATZAILEA-

## Christian Dior: ametsen jostuna erakusketa

Orain dela pare bat hilabete oporretan Parisera joateko aukera izan nuen. Bide batez, Maison Dior eta Christian Dior bere fundatzailearen 75. urteurrenaren omenez antolatutako erakusketa ikusi nuen Arte DekoratiBoen Museoa.

Egia esan, hilabeteak neramatzan bisita planifikatzen, kritikak oso onak baitziren eta leihatilan oso zaila zelako sarrerak lortzea. Interneten erosteko aukera aztertzen hasi nintzenez, berehala ikusi nuen internet bidez ere oso konplikatu zela sarrerak lortzea. Eskerrak denborarekin hasi nintzela!, bidaia egiteko

aukeratu nituen egunetan sarrerara gutxi gelditzen zirenetan. Azkenean, zorionez, lortu nuen sarrera bat.

Eta eguna iritsi zen, hasierarako zita neukan, baina han nengoen ni ordubete lehenago ilaran -nire aurrean, kale gorrian nik baino denbora gehiago zeraman jendea zegoen, denak sarrerarekin-, sartzeko irrikitan eta esaten zuten guztia egia zen ziurtatzeko gogoarekin.

Eta halaxe izan zen, erakusketak ez zidan inola ere huts egin. Museoko ataritik igaro eta berehala murgildu nintzen Diorren mundu zoragarrian. Sa-

rterako atea Diorrek Parisen izan zuen lehen jostintza tailerreko ate mitikoaren berdina zen, eta handik kolore-paleta baten bitartez jantziak eta osagarriak erakusten zituen pasillo batetik pasatzen ziren. Pasillo hartatik soinekoak erakusten zituen eskegitako paperezko lorez betetako areto batzuetara pasatzen ziren. Korridore eta areto guztietatik pasatu ondoren, klimaxa zegoen, Versailles Jauregiko areto bat bezala birsortuta zegoen gelan etxeko goi-mailako jostintzako soineko ikonikoenak zeuden, erakuslehoetan eta altura desberdinetan jarrita; aretoan zeuden




argi-efektuekin gehiago nabarmentzen ziren oraindik.

Azken finean, erakusketa IKUSGARRIA, bisitariari amets eginarazten eta modarekin ilusionarazten diona. Han erakusten diren soinekoak errealitate bihurtutako ametsak ziren.

*Naturala eta zintzoa izanda, sarritan, eskatu ez diren iraultzak sor daitezke* (Christian Dior)

Instagram: [solas\\_design](#)  
Facebook.com/solasdesigns

## *olatz etxeberrria* -ARKITEKTOA-



**Biak makinak dira, batzuek geldirik egoten dira eta ezin ditugu tokiz mugitu eta beste batzuek mugimenduarekin erakusten dute euren erabilgarritasuna. Baina bien funtzioa berdina da, gizakiari zerbitzua ematea.**

Eraikinak mota askotakoak daude beraien erabileraren arabera moldatu behar dutelako, etxebizitza eraikinak ez dauka zer ikusirik eskola eraikin batekin, adibidez. Berdina gertatzen da auto arrunta eta autobusarekin. Horietako bi makina arrunt konparatzen baditugu, etxebizitza eta auto arrunta hartuko nituzke, esanguratsuenak direlako. Eta zergatik bien ar-

## Eraikinek eta autoek parekotasunak dituzte

teko parekotasuna egin beharra? Nora heldu nahi dut?

Gure bizian zehar normala izango da horietako batzuk erabiltzea eta gutariko askok erosi edo alokatu ere egingo ditugu. Oso tresna garrantzitsuak dira guretzat gaur egungo bizimodua euren inguruan ematen dugulako. Bien balioa gizakiarentzako oso handia da, zertarako balio duten ez dago zalantzarik.

Baina bien artean alde handia dago, eta ezberdintasun horrek kostuak edo beraiengatik ordaindu behar dugunak ipintzen du: autoak askoz ere gutxiago kostatzen du etxe batek baino. Hona arte denok ados, ezta?



Eta orain galdetzen badizuet zergatik auto bat erosterakoan adituen aholkua eskatzen dugun eta eraikina bada askotan ez? Bigarren eskuko auto bat erosi aurretik fidagarria iruditzen zaigun mekaniko baten gana eramaten dugu ikuskapena egin diezaion eta ea merezi duen erostea edo salmenta prezioa ona den jakiteko. Eta bigarren eskuko etxe bat erosterakoan, aditu bati deitzen diogu ikuskapen bat egiteko? Teknikari aditu bati eskatu diezue aholkua jakiteko ea ezkutuko akatsak dituen, arrakalak, ezkutuko hezetetasunak? Egin ohi da hau? Bai zera!

Ez zaigu burutik ere pasatzen horretaraino heldu beharra dagoenik, eta oso aiaroso erosten ditugu etxeak edo eta eraikinak, eta gero, horrela etortzen dira ezustekoak eta arazoak. Zelan da posible bigarren eskuko autoa erosteko mekanikoaren iritzia jakin nahi izatea eta etxe baten erosketaren aurrean hitzik ere ez!



Martitzenean "Angula ustelak, zer gertatzen da Euskal Erregimenari aurre egiten badiozu?" izenburu duen hitzaldietako bat eskaini zuten Arrate Kultur Elkartearen Ainhoa Intxaurrendieta EH Bilduko Lezoko zinegotziak eta Igor Melchor "Periodista canallak". Intxaurrendieta San Marko Mankomunitateko lehendakaria eta, ondoren, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioako (GHK) lehendakaria izan zen 2011-2015 legegintzaldian. Irailean bera eta Iñaki Errazkin Ingurumen diputatu ohia epaituko dituzte eta ondasun pertsonaletatik 100 milioi euro eskatzen dizkiete. Horren aurrean, gertatutakoa gizarteari jakinarazteko kanpaina hasi dute, "beste eredu bat nahi duten herritarrek hauteskondeak irabaztea lortzen badute ere, eta milaka milioiko zorra dakarten proiektuak alferrikakoak direla frogatu arren, negozio horiek ezin direla ukitu esaten digulako botereak". Epaiaketa mugarriztat jotzen dute, "marra gorri hori pasata, aurrerantzean edozein proiektu gelditzen saiatzen denak aurrekari horren itzal izugarria izango duelako gainean. Jendea mobilizatu egin behar da".

## AINHOA INTXAURRANDIETA:

# "Galera guzti hauek egozten dizkigutenak dira horren errudun bakarrak"

Hitzaldian, Gipuzkoako erraustegiaren kasuko gertakizun zehatzetan oinarritu baziren ere, "Euskal Erregimenak nola funtzionatzen duen" erakutsi zuten, "diru publikoa betikoen esku pribatuetara pasatzeko mafiaren jokamoldea erabiliz, demokrazia batean onartezina dena". Helburutzat jo zuten, horren aurrean, "herritarrak gertatzen ari denaren gainean informatzea" eta gainditzeko asignaturatzat jo zuten "komunikatiboki eragitea".

"Administrazio publikoa enpresen gainetik eta herritarren interesak defendatzeko dagoela erakutsi genuen eta, horrek min egin zuenez, EAJK eta PSEK Madrilen salatu gaituzte eta hango auzitegian Margarita Mariscal de Gante, Aznarrekin PPko Justizia ministroa izan zena izango da gure kasuaren instruktorea" esan zuten Intxaurrendietak gaia azalerratzean. Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan sartu berritan "dokumentazio ugari falta zela" ohartu zirela kontatu zuten, "langileen artean, beti laguntzeko prest zeudenekin batera, oztopatzen zeudenak ere izanik". Horregatik, "hainbat gertakari bereziren ondoren", euren aurretik egon zirenek milaka artxibo desagertzea lortu bazuten ere, berreskuratutako 149 artxibotatik atzemandako informazioak hainbat gauza erakutsi zizkieten: "Hasteko, bi azpiegitura mota daude: errauste planta eta

balorizazio energetiko planta. Azken honek hondakinak birziklatzen ditu, energia bilakatzuz; erraustegi batek, berriz, zabortege baten moduan funtzionatzen du, hondakinak zulo batera bota beharrean, erre egiten dira. Zubietako errauste plantak balorizazio energetikorako baimenak zituen. Europako Inbertsio Bankuak emandako mailegua balorizazio planta eraikitzeke eman zuten, ez erraustegi baterako. Zeuden dokumentuetatik ondorioztatzen da erraustegi bat eraiki nahi zutela, horretarako baimenik ez zutela jakin arren".

GHKren kontrako sententzia atera ondoren ere, ez zutela errekurritu nahi izan dio Ainhoa Intxaurrendietak, "eta orain, produktu horiek ez ordaintzeko ahaleginak egin genituenoi salaketa jarri eta guk ordaintzea eskatzen dute. Aurpegia behar da gero!". Zehazki zer egozten dieten galdetuta, "batetik swapak (bi entitateen arteko truke finantzieroak) leporatzen dizkigute eta, bestetik, enpresei ordaindu beharreko kalteordaina", dio zinegotziak. "Swapak sinatu ziren une berean 5,6 milioi euroko galerak izan zituen GHK-k, sinatze hutsagatik. Eta, jakina den moduan, EAJKo ordezkari politikoak, Caixa eta Banestoko zuzendariekin jabetxe batera joan ziren angulak jatera, diru publikoarekin ordainduta". Behin EH Bildu agintean, produktu horiek bertan behera uzteko demanda

ere sartu zuela dio Intxaurrendietak eta, "orain swapak sinatu zituztenek eta epaitegietan defendatu zituztenek guk ordaintzea nahi dute. Gu GHK-n sartu ginenean, ekonomikoki ere kaltegarria izango zen azpiegitura bat eraikitzen hasi behar genuen eta, hori egin ezean, kalte ordainak blindatuta laga zizkiguten. Zer egin behar genuen? Ingurumena eta osasuna kaltetxeaz gain, Gipuzkoari zorpetze izugarria sortuko zion azpiegitura eraikitzen hasi, aurretik defizitarioa izango zela jakin arren?".

Hondakinen tratamendua pribatizatu egin dutela dio lezotarrak eta, aurrerantzean, "Urbaser enpresari lotu gaituzte. 35 urtean gipuzkoarron diruak txinatar enpresa baten etekin ekonomiko izango dira derri-gor. Eibarko udalak sistema merkeago eta jasangarriagoa aurkitzen badu ere, ezingo du gauzatu". Igor Melchorrek bat egin zuten berarekin: "Azkenean kapitala da guztiaren gainetik duguna gizarte honetan. Izugarria da herritarrak, udalak, zein arinkeriarekin zorpetzen gaituzten gutxi batzuk aberasteko. Eta ez dugu erreaktionatzen!".

GHK-n egon zenean ere, bera "kontra-boterea" zela onartzen duen Ainhoak badu itxaropenik epaiaketa aurrean, "guztiz zuzen" jokatu dutelakoan. Eta, horrelakoen aurrean, "pedagogia egitea" beharrezkotzak jotzen du.



**FERNANDO SOLANA:** "Elurrarekin dantzan".

## Eibarko XXVII. Duatloia jokatu da bihar

Arratsaldeko 16:45ean irtengo dute emakumezkoek eta handik 3 minutura, 16:48an, gizonetzkoek Eibarko Duatloia



27. edizio honetan. Parte-hartzaileek 5 kilometro egin beharko dituzte antxitxika, jarraian 18 bizikleta gainean eta, amaitzeko, aurrekoaren erdia -hau da, 2 kilometro eta erdi- lasterka berriro. Proba horretan, gainera, Gipuzkoako Duatloi Sprint Txapelketa izango da jokoan. Boxeak, azken urteetakoari jarraituta, Untzagan kokatu dituzte.

### Delttecokoak Mungian

Aurreko zapatuan, bestalde, Eibar Triatloi Taldeko hiru ordezkari hartu zuten parte Mungia duatloian. Euretako bik amaitu zuten proba: Roberto Gartzia ordubete eta 5 minutu behar izan zituen amaitzeko (55. postuan, 12. bere mailan) eta Pablo Zabalak minutu bat gehiago (61. postuan, 7. bere mailan). Andoni Mayok zorte txarra izan zuen eta, bizikletaren katea apurtuta, bertan behera laga behar izan zuen proba. Han izan zen Saltoki taldeko Ane Ziaran ere, 11. postuan amaitzeko.

## Eibarko xakelariak bikain hasi dira eskolarteko txapelketan

Aurreko domeka goizean Klub Deportiboren egoitzan jokatuak Eibarko zonaldeari dagokion Gipuzkoako Eskolarteko xake txapelketaren lehenengo jardunaldian 24 jokalarit ziren (hiru infantiletan, zortzi alebinetan eta 13 benjaminetan) eta, goiz osoan jardun eta gero, Itzioko Adrian Martinikorena eta Aldatzeko Zehao Ye nagusitu ziren, infantiletan eta benjaminetan, hurrenez hurren. Alebin mailan Arrasateko Aritz Tornay izan zen puntu gehien bildu zuena. Etzi bigarren jardunaldia jokatu da, toki berean eta 10:00etan hasita.

### Porrotak Gipuzkoako Ligan

Aurreko asteburua ez zen onena izan Eibarko Klub Deportiboko talde bientzat, biak



galtzaile amaitu baitzuten jokatuak neurketa. 3. Mailan jokatuak duen bigarren taldeak 3'5-0'5 galdu zuen Mekatar-Elgoibar B taldearekin eta, horrez gain, behin liga amaituta ez du txartelik eskuratu igoera fasea jokatuzko. 1. Mailan jokatuak duen talde nagusiak, bestalde, 1-3 amore eman zuen Hondarribi- Marluxka B taldearen aurrean, Jon Aranak irabazitako partida bakarrarekin. Bihar Donostian Fortuna taldeari egingo diote bisita Zuhaitzi kiroldegian.

## 26 domina Kalamuako ordezkarietzat

Urrezko 10, zilarrezko zazpi eta brontzezko beste bederatziz eskuratu zituzten Kalamua klubeko gazteenek aurreko zapatuan Zumarragako Beloki frontoian jokatuak torneoan. Arratsaldeko 16:00etan hasi zen lehiaketan 200etik gora neska-mutil izan ziren parte hartzen, Tolosa, Legazpia, Gabiria, Azpeitia, Zumaia, Arrasate, Ondarroa, Zumarraga eta Eibar ordezkatuak. Kalamuak 26 judoka aurkeztu zituen eta podiumaren goren-gorengora igo ziren Eneko Korta, Koldo Estenaga, Alex Jimenez, Zehao Ye, Unai Alvarez, June Valladares, Paul Iriondo, Joane Vega, Aiora Ballesteros eta Julen Martin. Madrilen, Andorran, Arrasaten izango dituzte hurrengo erronkak.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

Deportivo Coruña - Eibar (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen 2. Maila

Aurrera Vitoria - Eibar (etzi, 11:30)

#### 2. B Maila

Racing Santander - Vitoria (etzi, 17:00)

#### Emakumezkoen Lurralde Maila

Bergara - Eibar (etzi, 12:00)

#### Erregional Gorengoena Maila

Idiazabal - Eibar Urko (bihar, 16:30)

#### 1. Erregionala

Urki - Zarautz (bihar, 15:30)

Arizmendi - Eibartarrak (bihar, 17:30)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

Danak Bat - Eibar (etzi, 12:30)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

Danak Bat - Eibar Urko (etzi, 10:45)

### FOBALL-ZALETUA

Ipur Sagardotegia - Alkideba (bihar, 09:00)

Slow XOK - Sporting (bihar, 09:00)

Reformas Hiru - Tankemans (bihar, 10:30)

Feredu Solutions - Esmorga (bihar, 12:00)

Bar Areto - Durango (etzi, 09:00)

Bar Arkupe - Azkena Adahi (etzi, 10:30)

Bar Txoko - Garajes Garcia (etzi, 12:00)

### ESKUBALOA

#### 1. Nazional Maila

Uharte - Somos Eibar (bihar, 18:45)

#### Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Avia Eibar - Galdakao (bihar, 17:30)

#### Gipuzkoako 1. Maila

Aloña Mendi - Haritzai (etzi 12:00)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

Avia Eibar Rugby - Bathco (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Escor Gaztedi - Avia Eibar (bihar, 16:30)

### SASKIBALOA

#### Gipuzkoako 3. Maila

Ordizia - Katu Kale (bihar, 19:30)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

Urbat Urkotronik - Wp Navarra (etzi, 14:15)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Sestao (bihar, 15:40)

### XAKEA

#### Gipuzkoako 1. Maila

Fortuna A - Eibar A (bihar, 16:00)

## Menditour-eko bi emanaldi Deportiboko mendi jardunaldietan

Datorren asteko martitzenean eta eguaztenean mendizaleek gozatzeko moduko emanaldiak izango dira Coliseoan, egun bietan arratsaldeko 19:00etan hasiko den pelikulen proiektioekin. Azken urteotako martxari jarraituta, azken Bilbao Mendi Film Festivalen ikusitako film onenetarikoak izango dira ikusgai saio horietan. Hilaren 6an Mikel Peñaren "Aurrera" (7 minutu), Ben Pageren "The Frozen Road" (24 min.) eta Jennfer Peedom australiarraren "Mountain" (73 min.) ikusi ahal izango dira. Lehenengoan 68 urteko Irene da protagonista, men-



diko-lasterketak ezezagunak zirenetik hainbat proba egin dituen. Bigarrenak Bene egileak bakardade perfektuaren bila egindako abentura kontatzen du, Kanada Artikoan barna neku minean egindako bizikleta zeharkaldi gordinarena. Eta hirugarrenak "mendiarekiko gure lilura betierekoaren historia arakutzen du, argitzalez betetako historia loriatsu eta

zurrunbilotsuan". Hurrengo egunean, hilaren 7an, 4 minutuko "Where the Wild Things Play" Australiako laburra eskainiko dute hasteko. Krystle Wright-ek hainbat emakumezkoen balentriak erakutsiko dizkigu, "txundituta lagako zaitzutenen jarduera bitxi eta bikainak egiten". Jarraian 96 minutuko "Dirtbag: The Legend of Fred Beckey" filmean Dave

O'Leskek 2017ko urrian 94 urterekin hil zen Beckeyren bizi-modu bakartia kontatuko digu mendizaleari egindako tributu, "tartearen mendira eta eskaladarako grina itsua erakutsiz". Saio bakoitzeko prezioa 5 eurokoa da eta aurre-salmenta gaur bertan zabalduko da. Hilaren 22ko hitzaldiarekin eta 24ko eskaladarekin amaituko dira Jardunaldiak.



## Maite Barruetabeña junior igerilaria nabarmendu zen Gipuzkoako txapelketan

Zapatu eta domeka beteak izan zituzten Eibar Igerixan taldeko igerilariek aurreko asteburuan, hasi Irungo Azken Portuko igerilekuan jokaturako infantil, junior eta absoluto mailetakoko Gipuzkoako txapelketekin eta Legazpiko Gipuzkoako Sariarekin jarraitzeko. Bederatzi domineko altxorra bildu zuten eibartarrek Irunen (euretako bost urrezkoak, bina zilar eta brontzerekin) eta beste bi zilar ekarri zituzten Legazpitik. Saillapen orokorrean zortzigarren postua eskuratu zuen Eibar Igerixan taldetik nabarmenduko dugu Maite Barruetabeñaren lana: junior mailako txapela janzteaz gain, lau gutxieneko marka lortu zuten Espainiako Open txapelketarako-eta. Bihar eta etzi Euskal Herriko infantil mailako txapelketa izango da jokoan Tolosan. Ea zorte bera duten!

## Deportiboko atletak estatuko txapelketan

Aurreko asteburuan Eibarko Klub Deportiboak hiru ordezkari izan zituen Castellon eta Burjassoten jokaturako Espainiako txapelketetan. Castellon jokaturako jaurtiketa luzeetakoan, Jone de Castro bosgarren izan zen 20 urtetik azpikoetan eta Garoa Magunazelaia seigarren 16 urtetik azpikoetan, biak ere jabalina jaurtitzen. Burjassoten, bestalde, 10 kilometroko martxa txapelketan, Markel Gutierrez 11. izan zen eta bere marka 24 segundotan hobetu zuen.

Aspaldiko partez eguzkiak mendiaz gozatzeko aukera paregabea eskaini zien Negutrailean parte hartu zuten korrikalariak 18 kilometroko ibilbidea egiteko.

Egoarbitza tontorra eginez osatu zuten parte-hartzaileek Eibarko Klub Deportiboak antolatutako Mendi Jardunaldiei hasiera ematen zion Negutraila. Kalamua Korrikalari Taldekoek maiatzeko Udabertraira izango dute hurrengo erronka.



**Eguraldi eta giro bikaina Negutrailean**

## Eibartik Saharara Pandemonium Raid-aren VII. edizioari ekiteko

Atzo goizean aurkeztu zuten Ipuruia football zelaiaren ondoan Pandemonium Raid-aren zazpigarren edizioa, Garajes Garciako parte-hartzaileekin, Miguel de los Toyos eta Iker Aldazabal Eibarko eta Soroluzeko alkatereekin eta Amaia Gorostiza Eibar FT-ren presidentearekin. Antxon Garciak eta bere osaba Fernandok hirugarren aldiz hartuko dute parte oraingoan martxoaren 9an Eibartik abiatuko den raid solidarioan. Marokkon jokatzeko den Pandemonium Raid-ean 25 urte baino zaharragoak diren autoek hartzen dute parte, "hori bai, ezin dute 1,2 litroak gaintitu eta ezta 60 CV ere". Garajes Garciako eibartarrek Citroën AX batekin hartuko dute parte eta, osatuko dituzten 3.000

kilometrotan, kirol materiala, oinetakoak eta abrigo-erropa banatuko dute "bertakoen aurpegietan ilusioa pizteko gogoz". Aurtengo abentura modu berezian biziko dute gainera, dokumentala errodatzeko asmoa baitute "Raid-ak iraungo dituen hamar egunetakoa jasotzeko". Proba Sahara basamortuan jokatu da eta Ipuruia zelaitik irtingo dute datorren barixaku goizean, hortik Tarifaraino joan eta, ferry batean, Tangererra heldu ondoren. Behin Marokkon, Atlas zeharkatu dute Merzougako dunetako bihotzetara heldu baino lehen. Elkartasun lan horretarako dirua ere behar dute eta crowdfunding bat sortu dute:

<https://www.lanzanos.com/proyectos/kilos-de-ayuda-en-un-citroen-ax/>



## Udaberri Saria Ibon Aldayrentzat

Aurreko domeka goizean jokatuako junior mailako lasterketa Baqué taldeko txirindularientzat izan zen, T. Etxebarria kaleko esprintean Limousin-Oriako taldeko Julen Dorronsorori aurrea hartu eta gero. Bi ordu, 6 minutu eta 59 segundo behar izan zuten aipatuako biek eta 48 segundora helmugaratu zen podiuma osatu zuen Iñigo Aranburu (Portabicis.com). Mendia Alday probaren irabazlearentzat izan zen, taldeka Limousin izan zen onena, lehiakortasun saria Alex Urangak bereganatu zuen eta Debarrenako lehena Ciclos Iturriagako Jon Ibarluzea izan zen Eibaroko Txirindulari Elkartearen antolatutako proban.

## Pello Osoro Euskadiko neguko triatloi txapeladuna izan zen Isaban

Aurreko domekan jokatuako Erronkari Aranako Neguko VIII. Triatloian, Espainiako Koparako puntuagarria izateaz gain, Euskadiko Txapela ere bazen jokoan eta Osorotarrak bikain ibili ziren beste behin. Triatletek 8,3 kilometro oinezko lasterketan, 22 errepideko bizikletan eta, amaitzeko, beste 10 kilometro eskiekin osatu behar zuten. Antxintxiketan Pello Osoro nagusitu zen, baina bizikleta gainean Joan Freixak hartu zion aurre eta, eskiekin egindako azken zatian Pello onena izanda ere, ezin izan zion denbora guztia errekuaratu azkenean garaile izango zen Freixari. Bigarren amaituta ere, Euskadiko txapela eibartarrak jantzi zuen, eta bere atzetik izan zuen azpitxapeladun Txomin anaia (seigarrena sailkapen orokorrean). Txominendako izan zen txapelik, 23 urtetik azpikoaren artean bera izan zelako onena. Beste eibartar bat, Ibon Serrano, txapeladunorde izan zen betearno 2 Mailan.



Pello Osoro eta Ainhoa Mendia txapeladunak.

"Aski da!". "Kitto!". Mila hitz irtengo dira emakumeen ahotik Emakumeen Nazioarteko Egunean, Martxoaren 8an, baina bik batuko dituzte euren aldarriak. "Emakumeok planto". Berba bi eta jarrera bateratua. "Menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzeke". Askotarikoak dira arrazoiak eta horregatik egingo dute greba. "Eredu ekonomiko honek zapaltzen gaituelako; indarkeria matxistak jipoitzen gaituelako; arrazakeriak hiltzen gaituelako; eta kultura patriarkalak baztertu, objektu bihurtu eta estereotipatzen gaituelako".

Eibarren ere emakumeek Martxoaren 8an planto egiteko deia jaso dute, baina hilabete guztian egingo dira emakumeen

borroka aldarrikatzeko jarduerak. Zine- eta bideo-forumak, hitzaldiak, mintzodromoa, performancea, emakumeen txirindulari-lasterketa eta hainbat erakusketak egingo dira Martxoaren 8ko Batzordeak antolatuta.

**Kartel-lehiaketa antolatu da jarduera guztiak irudi baten inguruan murgiltzeko eta Jone Bengoaren lana saritu dute.**

Eibarko emakumeen argazki zaharrekin egindako kamiseta daraman emakume gaztea irudikatu du Jonek, 'Eibarko Emakumeak: izan direlako, gara' izenburupean. Ilustratzaile eibartarraren lanetan emakumeak dira protagonista. Akuarelen bitartez emakumeen boterea irudikatu eta feminismoaren aldarriak batzen ditu. Martxoaren 8an zein urteko edozein egunetan igorri beharreko mezuak.

## JONE BENGOA:

# "Emakumeok borroka honen kontzientzia dugula agerian jarriko da Martxoaren 8an"



- Zer islatu nahi izan duzu kartelarekin?

Gaur egungo emakumeak nolakoak garen ulertzeko, gure aurretik egon diren emakumeen garrantzia adierazi nahi izan dut. 'Eibarko Emakumeak: izan direlako, gara' zen kartel-lehiaketaren leloa eta zuzenean islatu nahi izan dut hori, antzinako emakume eibartarren argazkiak dituen jantzia daraman emakume gaztea irudikatuz. Gainera, nire birramona agertzen da argazki batean, beraz, modu literalean islatu ahal izan dut.

- Zure lanek antzeko estiloa jarraitzen dute eta gaia ere berdintsua da guztietan, emakumeak eta feminismoa direlako protagonista. Zergatik?

Beti izan naiz feminista eta ilustrazioetan zein arte munduan emakumeak oso gutxi irudikatu izan direla iruditzen zait. Gizonezkoek margotu izan dutelako gertatu da hori, eta euren irudikatzen duten emakumeen irudia oso idealizatua eta normatibizatua izan da. Ez dute emakumeon benetako irudia islatu izan. Horregatik, emakumeak edozein artetan irudikatzea interesgarria eta garrantzitsua dela iruditzen zait.

- Artea eta artearen mundua matxista izan da?

Matxista izan da eta da. Hala ere, alda-keta ikusten ari da. Gero eta emakume artista eta ilustratzaile gehiago dago, eta gero eta presentzia handiagoa eta harrera onagoa daukate, baina oraindik lan asko

dago egiteko zentzu horretan. Hori bai, oraindik inork ez daki emakume artisten izenik. Picasso, Monet... bai, baina emakumezko izenik ez da agertzen, historian zehar gizonezkoak bakarrik izan direlako irudikatuak. Historia gizonek idatzi dutelako gertatzen da hori. Orain aldatzen doa, aldatu beharko litzateke behintzat.

- Zer sentitzen duzu margotzen edo sortzen duzunean?

Alde batetik, nire ideiak islatu eta zabalteko margotzen dut; eta bestetik, nire zaletasuna da, eta lanetik edo klasetik irteetan deskonektatzeko margotzen dut. Kanpora eta barrura begira egiten dudana jarduera da niretzat margolaritza.

- Margolaritzaren inguruko ikasketak egin dituzu?

Ingeniaritza ikasi dut, diseinu industrial, eta jendeak pentsatzen duenaren kontra, ez gara margotzen ibiltzen. Beraz, margolaritza kontrapuntua da niretzat, ihesbidea.

- Sastraka da zure marka edo alter egoa. Zertan datza proiektuak?

Edozein landare izan daiteke sastraka, nahi ez dugun tokian jaiotzen bada. Kontzeptu hori eta hitza bera, bere soinua, gustatzen zaizkit eta horregatik erabili dut. Nire burua eta nire marrazkiak banatu nahi izan ditut. Nire pertsonarekiko hesia jarriz gauza gehiago adierazi dezaket, beldur gutxiagorekin. Libreago sentitzen naiz Sastrakaren aterkipean.



**- Ilustrazioen bitartez errazago edo eraginkorrago heltzen da igorri nahi duzun mezua?**

Gaur egungo mundu bisualean -are gehiago sare sozialekin-, gehiago zabal-tzen da irudi bat idatzizko mezu bat baino. Beraz, ilustrazioek indar handia daukate eta aukera oso ona da kanal hori erabiltzea mezuak zabaltzeko.

**- Gauza asko ditu aldarrikatzeko oraindik mugimendu feministak?**

Beti aldarrikatu izan diren kontuak aldarrikatzen jarraitu behar dira oraindik, nahitanez berehalda aldatu behar diren gauzak, baina badaude egunerokotasunean irudikatu edo zabaltzeko ez diren hainbat kontu eta horiek ere aldarrikatu behar dira. Adibidez, hilekoaren inguruan marrazten nabiltzen azken aldian, inoiz ez dudalako ikusi espreski hilekoaren inguruko lanik. Emakumeon ilearen inguruan ere ez da ia ezer irudikatu. Tontakeria dela eman dezake, baina tabuak izan dira beti eta garrantzitsua da gauza horiek irudikatu eta normalizatzea.

**- Eibarko mugimendu feministan murgilduta zaude. Nolako espektatibak dituzue Martxoaren 8ari begira?**

Emakume gehienok dena emango dugula pentsatzen dut. Egun polita izango da. Aldarrikapen eguna da, eguneroko lanean emakumeon falta igarriko da eta emakumeok borroka honen kontzientzia dugula agerian jarriko da. Gainera, sororitate edo elkartasun momentu polita izango da Eibarko emakume guztiak elkartu eta lanuztea egitea.

**- Nolako giroa bizi duzue herriko eragile feministen artean?**

Oso ona! Naluako kidea naiz eta gero eta jende gehiago batzen ari gara. Orain dela gutxi Ilargi Festa antolatu genuen eta

# MARTXOAK 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

## EMAKUMEOK PLANTO



**MARTXOAK 2, OSTIRALA**  
 19:00. Zine-Foruma, Criadas y Señoras pelikularekin, Portaleko Areto Nagusian, Pagatxak antolatuta

**MARTXOAK 5, ASTELEHENA**  
 18:30. Emakumeen Istorioen Bideo-Foruma, Teresa de Jesús, Portaleko ikastaro-gelan, Pagatxak antolatuta

**MARTXOAK 8, OSTEAGUNA**  
 Greba Feminista

**MARTXOAK 13, ASTEARTEA**  
 18:30. Martxoaren 8ko kartel irabazlearen sari-banaketa Portaleko erakusketa gelan  
 19:00. "Izan direlako gara; emakumeen ekarpenak jasotzeko proiektuak: Wikiemakume@k eta Gure Genealogia Feministak" HITZALDIA, Portaleko Areto Nagusian

**MARTXOAK 15, OSTEAGUNA**  
 19:00. "Emakumeak eta bizikleta" hitzaldia, Museoa, Hizlaria: Ilizar Alonso. Armagintzaren Museoak antolatuta

**MARTXOAK 17, LARUNBATA**  
 10:30 - 13:30. "Eibarko Emakumeak: izan direlako, gara MINTZODROMOA", Udaltzeko arkupean, Nerea Ariznabarreta eta Maialen Belaustegiren eskutik PERFORMANCE bat ere izango dugu

**MARTXOAK 18, IGANDEA**  
 9:30. Emakume txirindulari-lasterketa Untzagatik, Eibarko Txirindulari Klubak antolatuta.

**MARTXOAK 20, ASTEARTEA**  
 18:30. "Gaza Amal: Gazako zerrendako emakume ausarteko istorioak" erakusketaren aurkezpena, UNRWA Euskadi

**MARTXOAK 26, ASTELEHENA**  
 18:30. Emakumeen Istorioen Bideo-Foruma, Leonor López de Córdoba, Portaleko ikastaro-gelan, Pagatxak antolatuta

**ERAKUSKETAK**

**MARTXOAK 7 - 15**  
 "Isaspeko bihotzak" areto literarioa

**MARTXOAK 13 - 28**  
 "Gaza Amal: Gazako zerrendako emakume ausarteko istorioak" Kartel-lehiaketako kartel-erakusketa "Artectura Feministak", Emakumeen Etxeen Sarea Portaleko erakusketa aretoan

**Antolatzaileak:**



**Laguntzaileak:**



Martxoaren 8aren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte herriko hainbat elkartet.



**M8 GREBA FEMINISTA**  
**Eibarko Emakumeok\* planto**

**Informazio gunea**  
 11:00 Pikete informatibo feministak  
 12:30 **KONTZENTRAZIOA**  
 15:00 Material prestaketa

**Emakumeek\* kalera!**  
 18:00 **Informazio gunea**  
 Untzagatik **KAZEROLADA** 19:30  
 Buakaera jaialdia 22:00 **Untzagan**

Eibarko mugimendu feminista

arrakasta handia izan zuen. Gauzak egiteko gogoarekin gaude eta gogotsu datoren jendea hurbildu da.

**- Kontzientzia badago, baina emaitzak ikusten dira?**

Nire inguruan bai, emaitza garrantzitsu eta politik ikusi ditut. Batez ere gai asko mahai gainera ateratu ditugulako, etxe askotan inoiz jorratu ez diren gaiak, eta pausoak ematen hasi gara zentzu horretan.

**- Feminismoak barruan dauka etsaia askotan? Feminismo burgesa, itxurakeria edo ustezko aliatu gizonezkoak, esaterako.**

Duda barik! Gero eta hobeto dakigu horrelakoak identifikatzen. Feminismoa modan dago, baina oso argi dago nolako feminismoa dagoen modan. Feminismo diru-

duna, kapitalista eta zuria dago modan, feminismo pribilegiatua. Oso kontziente izan behar gara horretan ez jausteko. Feminismo mota ezberdinak daude, baina zapalduak laguntzea dauka helburu feminismoak. Ondo dago norbaitek bere kamisetarekin aldarrikapen feminista egitea, baina agian kamiseta hori emakume esplotatu batek egin du. Orduan, ez dauka zentzurik. Baina tira, gu bizi garen mendebaldeko munduan, Euskal Herrian, ez da erraza.

**- Martxoaren 8a indartsu dator, baina gero, martxoaren 9tik aurrera, zer?**

Martxoaren 8a indartsuak jarraipena izango duela pentsatzen dut. Emakumeak elkartzen eta antolatzen hasita, eta mugimendua dagoela ikusita, jarraipena bultzatuko dela iruditzen zait.

## Pedro Alfonso Vilas (break dance dantzaria)

“Arrisku-saltua ikasteko curiositateak eraman ninduen **Break Dance** egitera”

15 urterekin ezagutu zuen Pedro Alfonso Vila eibartarrak oinarrian mugimendu zirkular eta akrobatikoak dituen Break Dance dantza, eta harrezkero bere bizitza dantza urbano horri lotuta egon da. Herrialde ugari ezagutzeko aukera eman dio break danceak, eta, asko zor diolako, besteekin konpartitza gustatzen zaio. Eibar eta inguruan klaseak ematen dizkie haurrei eta San Juanetan orain arte harrera ona izan duen txapelketa antolatzen du.



### - Nola hasi zinen mundu honetan?

15 urte urterekin salto mortala edo arrisku-saltua egiteko gogo handia eta curiositatea nuen. Urki futbol taldean horrelako gauzak egin zituzten lagun batzuk egin nintzen eta eurekin hasi nintzen probatzen. Uda zen eta egunero trenea hartu eta Debara joaten ginen praktikatzera. Irailerako banekien arrisku-saltua egiten, eta ondoren jira-bueltak etorri ziren. Hori hasiera baino ez zen izan. DBH egiten nengoen orduan, eta egunero joaten ginen entrenatzera poliki-roldegira, orain bulegoak dauden inguru horretara. Ondoren zarauztar batzurekin jarrin ginen harremanetan, gero beste batzurekin eta pixkanaka sare bat sortzen joan ginen. Orduan ez zegoen sare sozilik eta horrelakorik, eta harremanak egitea zailagoa zen.

### - Curiositatea zenuelako hasi zinen eta 12 urte daramatzazu gelditu gabe.

Zarauzko lagunekin break dance txapelketetara joaten hasi nintzen. *Kaña* eman genion eta guztiz engantxatu nintzen. Europa erdian egon naiz dantza egiten eta txapelketetan parte hartzen, eta baita Estatu Batuetan, Turkian eta Thailandian ere... Nire bizitzan dantza lehentasuna izan da eta leku askotan egoteko aukera eman dit. 2013an Donostiko Ertza dantza taldearen casting-era aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduten. Estilo urbanoa zuen koreografia prestatu genuen eta saio asko egin genituen Polonian, Alemanian, Frantzia, Italian, Espainian...



### - Lesio bat izan zenuen irailan baina, hala ere, aktibo jarraitzen duzu...

Dantza mota hau oso fisikoa da eta txarrena lesioak dira. Irailan Parisen lesio bat izan nuen. Oraindik sendatzen ari naiz, baina banoa pixkanaka. Lanetik irtetzean (robotika industrialia ikasi nuen Armeria eskolan eta orain mekaniko nabill) entrenatzera joaten naiz. Astean 3 aldiz umeei klaseak ematen dizkiet Arrasate, Bergara eta Eibarren. Lau talde di-

tut. Aratosteetan erakusketa txiki bat egin genuen Untzagan Break in Eibar, hementxo haur taldearekin. Udan, San Juanak inguruan, break eta beste dantza urbano batzuen txapelketa antolatzeaz arduratzen naiz. Orain arte hiru edizio egin ditugu eta, egia esan, oso harrera ona izan du. Honekin, egiten dudana erakutsi nahi diot jendeari. Ni naizena break dance-ari zor diot eta besteekin konpartitza gustatzen zait.

### - Zer ematen dizu eta nola dago ikusita?

Dantza honekin egunero-egunero gainditzen duzu zeure burua. Guztiz betetzen nau eta jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Orain dantza urbanoak aretoetan ikasten badira ere, nik kalean ikasi nuen. Udan kalean dantza asko egiten dut. Adibidez, Donostiako boulevardean urtero showak egiten ditut nire lagunekin. Hor sortzen den giroa gustatzen zait, nire saltsan nago, asko gozatzen dut eta jendeari gozarazten diot. Orain dela urte batzuk dantza mota hau ez zegoen oso ondo ikusita, eta leku askotatik botatzen genituen poliziak. Orain, egoera beste bat da eta lokalak lagatzen dizkigute, Urkizuko eskolan, Portalean, Birakan... eta Udalak ere bere babesa ematen digu San Juanetako ekitaldia antolatzeko.



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko **JANTZIAK**

ume eta gazte

**Kopina moda**

f kopinamoda

San Agustin, 3  
943 204181



● **tartak**

● **enkarguak etxera**

**Bidebarrieta, 28**

☎ 943 20 79 73


## “Zuk ez duzu ordezkorik” gazteentzako bideo eta audio lehiaketa martxan

**E**uskadiko Trafiko Zuzendaritzak “Don’t be dummy- Zuk ez duzu ordezkorik” bideo eta audio lehiaketa antolatu du 16 eta 20 urte bitarteko gazteentzat. Lehiaketan parte hartzen dutenek errepideari lotutako arrisku egoeraren bat deskribatu beharko dute eta, bideoa edo audioa erabiliz, egoera horiei aurre egiteko irtenbideren bat proposatu. Mugikortasun segurua, gidatzeari alternatibak, mugikortasun jasangarria... norberak erabaki dezake zer kontatu. Lehiakideek istorioren bat pentsatu eta bideoa edo audioa “Zuk ez duzu ordezkorik” mezuarekin amaitu beharko dute.

Lehiaketaren inguruko informazio guztia trafikoa.dontbe-

dummy.eus helbidean kontsultatu daiteke eta parte hartzeko ere webgune horretara jo beharko dute gazteek: “Parte hartu” atalean sartu, modalitatea (audioa edo bideoa) aukeratu eta izena emateko fitxa bete ondoren lehiaketara aurkeztu nahi den artxiboa bidali eta kitto, ez da besterik egin behar.

Lehiaketarako lanak maiatzaren 6ra arte jasoko dituzte eta jarraian internet bidezko bozketa zabalduko dute (maiatzaren 7tik ekainaren 10era). Lehiaketara aurkeztzen diren lanen artean sari ederrak banatuko dituzte (garraio publikorako bonoak, BTT bizikletak eta kaskoak...) eta horietako bat zuzentzat izan daiteke, animatu eta parte hartu!



**Don't be Dummy!**  
**Zuk ez duzu ordezkorik**



**Izadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA SER  
104,0 FM

**Funeraria·Ehortzetxe Mugica**

<b>EIBAR</b> Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	<b>ELGOIBAR</b> Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
---	---

Bulegoa Eibarko erdialdean  
24 orduko zerbitzu iraunkorra  
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelerara, gazteleratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.eus

Euskaldunon Egunkariaren itxiera dekretatu zuen Luis del Olmo Auzitegi Nazionaleko epaileak orain dela 15 urte. 3.789 zenbaki plazaratu eta gero, epaileak umezurtz utzi zituen momentu hartan euskal unibertsoaren erreferentziazko kazetak zituen 50.000 irakurleak. 2008an, Egunkariaren epaiketaren harira, peritu-txostena eskatu zien auzipetuen defentsak Txema Ramírez de la Piscina eta Teresa Agirreazaldegiri. Epaileak ez zuen froga onartu, baina Berriak eta Ttartalo argitaletxeak Egunkaria amets baten egia liburua argitaratu zuten eta, geroztik, unibertsitateetan erabiltzen da Euskaldunon Egunkariaren eta euskal prentsaren historia ezagutzeko.

## TERESA AGIRREAZALDEGI

### Kazetaritzako doktorea:

# “Hemen adierazpen askatasuna batzuek bakarrik daukate”

- *Euskaldunon Egunkariari buruzko txostena egin zenuen Txema Ramirez de la Piscina eta zuk 2008an. Nondik abiatu zen ikerketa egiteko ideia?*

Txema eta biok EHUko Komunikazioko Fakultateko irakasleak gara. Euskaldunon Egunkariaren kasuko auzipetuen defentsak peritu-txosten bat egiteko eskatu zigun; helburua peritu-txosten hori epaiketean aurkeztea zen.

- *Zein izan zen zuen asmoa txosten horrekin ?*

Euskaldunon Egunkariaren analisia egin genuen. Horretarako, kazetaren kalitate-adierazleak jaso genituen lehendabizi: irakurleen bilakaera, haren ekarpena eta lortu zuen onarpen akademikoa, euskal idazleen kolaborazioak, sariak eta langileen kualifikazioa, besteak beste. Bestalde, kazeta bera aztertu genuen, hau da, plazaratutako 3.789 zenbakiak, eta baita zoriz hautatutako 50

azal eta 100 albiste ere, berrietako protagonistak eta albisteen esparru geografikoa zeintzuk ziren jakiteko.

- *Zeintzuk izan ziren ikerketa horretatik atera zenituzten ondorio nagusiak?*

Euskaldunon Egunkariak kazeta modernoa zela erakutsi zuen irauin zuen 12 urteetan, kioskoetan zeuden gainerakoen parekoa. Langile-talde kualifikatua zuen, eta erreferentziazko kazeta zen euskal unibertsoan, onarpen zabala lortu zuen eta itxi zutenean 50.000 irakurle zituen. Joera euskaltzale eta aurrerakoia zuen, eta egokiro hurbildu zen Euskal Herriko errealitate politiko, instituzional, sozial eta informatibora. Askotariko informazio-iturriak erabiltzen zituen, mota askotako iritzi, analisi eta informazioak plazaratzen zituen, eta, elkarrizketatuei zegokien ere, aniztasuna zegoen. Euskal kulturaren lekuko eta eragile izan zen. Halaber, eus-



kal kazetaritzaren historian mugarria izan zen, eta bere testuak langaiak izan ziren irakaskuntzako maila guztietan.

- *Txostena amaitu eta gero, zer erabilera izan du?*

Esan dudana bezala, txosten perizial bat osatu genuen, epaiketaren defentsak hala eskatuta aurkeztuko genuena. Zoritxarrez, epaileak ez zuen onartu froga hori, eta kaxoi batean geratu zen 2010era arte. Orduan, Berriak eta Ttartalo argitaletxeak Egunkaria amets baten egia liburua argitaratu zuten, eta hor gure txostena eta Pedro Ibarra eta Ramon Zallo irakasleen txosten peri-

zuala plazaratu ziren. Geroztik, liburu hori unibertsitateetan erabiltzen da Euskaldunon Egunkariaren eta euskal prentsaren historia ezagutzeko.

- *Kazetaritzari erreparatu, nolako egunkaria zen Egunkaria?*

Lehen esan dudana moduan, kazeta modernoa zen. Euskal Herritik aztertzen zuen mundua, gai guztiak landuz eta euskal kulturaren arreta berezia jarriz. Elkarrizketak oso landuak zituen, eta, azterketa egitean, niri gehien harritu ninduen izan zen iritzi-zutabeetan eta elkarrizketetan zenbat ahots desberdin jaso zituen.

Egun, Berriari buruzko ikerketek ere hori azpimarratzen dute: gure kioskoetara heltzen den egunkari pluralena dela.

**- Zer esanahi zuen zuen Euskaldunon Egunkariak euskal gizartearentzat?**

Ilusio handiko ekimena izan zen, askoren laguntzarekin eta ekarpenekin sortu zena (orduko akzio bat gordeta daukat, beste lankide batek eta biok hogeita bost mila pezeta ordaindu genuen). Euskal komunitatea ehuntzeko tresna bat izan zen, eta harrotasuna eman zigun. Euskal kazetari-tzak bikain gainditu zuen erronka.

**- Eta itxierak zer eragin izan zuen?**

Suntsipena izan zen; amorrua eragin zigun, eta tristura: kazeta zigilatuta, 180 langile kalean geratu ziren; euskal kulturaren erreferenteak ziren pertsonak, atxilotuak, eta, gero jakin genuen bezala, torturatuak. Langileen kemena ere ikusi genuen; hurrengo egunetik Egunero kazeta kalean jarri zuten. Donostiako manifestazio erraldoia etorri zen gero; eta ekainean Berria egunkaria kalean zegoen.

**- Berriak Egunkariaren bideari jarraitu dio, baina zer ezin izan da berreskuratu? Zer geratu zen bertan behera bertirako itxiera hartan?**

Xalotasuna galdu dugu. Lehenago, 1998an, Egin egunkaria, bere taldeko irratia eta Ardi Beltza aldizkaria itxi zituzten. Baina Euskaldunon Egunkariaren itxierarekin ikusi genuen euskararekin zerikusia daukan edozein eta edozer egon dai-

## “Euskal komunitatea ehuntzeko tresna izan zen Egunkaria, eta harrotasuna eman zigun”

tekeela jomugan. Sumarioa guztiz zentzugabea izan zen, inongo frogarik gabeko fantasiazko akusazioak ziren, eta lehenengo momentutik hartuta-ko neurriak zuzenbideko balioetatik kanpo zeuden.

*ruan eman zuten dokumentalean ez ziren hitz itxaropentsuak entzun euskal kazetaritzaren etorkizunaren inguruan. Egoera larrian dago?*

Egunkariak krisian daude aspalditik: publizitate bidezko fi-



Egunkariaren inguruko txostena egin zuen Teresa Agirreazaldegik.

2010ean plazaratutako epaian, Egunkaria ixteko eta hamar lagun atxilotzeko neurriak inolako oinarririk gabekoak zirela esaten zen. Baina inork ez du azalpenik eman, inork ez du barkamenik eskatu, inor ez da saiatu kalteak erreparatzen. Gaur egun dagoen inpunitatea erakutsi digu prozesu guztiak.

**- 15 urte pasatu dira, baina ETB1en Egunkariaren ingu-**


nantzaketa amildu egin da, paperezko periodikoak gero eta gutxiago erosten dira, eta egunkari digitalek ez dute oraindik aurkitu beren eredu ekonomikoa; hori dela eta, sektorean lanpostu asko galdu dira. Enpresa handietan hori horrela izanda, pentsa nolakoa izango den egoera kazeta txikietan. Eta oraindik gehiago Berriaren kasuan, zeinaren unitertso potentziala oso mugatua

den. Bestalde, administrazioek euskal kazetaren inguruan politika lausoak dituzte, eta kazetaren ekarpena ez dute behar bezala baloratzen eta laguntzen.

Beste alde batetik, baina, esan behar dugu edizio digitalak Berriari inoiz izan duen irakurle kopuru handiena eman diola. Irakurle horien atxikimendua jasotzeko, BERRIALaguna kanpainari ekin diote. Euskaldunok eta euskaltzaleok serio hartu beharko genuke Argia aldizkariaren leloa: indartu dezagun indartzen gaituena.

**- 15 urteren ondoren, nola dago Espainian adierazpen askatasuna?**

Oso gaizki: egun hauetan bertan rapero bat kartzelan sartzeko agindu dute bere abestien hitzengatik; artista baten koadroa kendu berri dute ARCO arte garaikideko azokatik; sare sozialetako ahoz kritikoek pertsekuzioa jasaten dute... Zoritxarrez, ez dira albiste berriak Euskal Herrian. Duela hainbat hilabete izugarriko kanpaina mediatikoa antolatu zuten euskal artista batzuen kontra, ETBko umorezko saio batean, euskaraz eta ordu txikitik, egindako adierazpenen harira. Ematen du behatoki bat dutela halakoak jasotzeko eta lantalde batek erabakitzen duela holakoak nola erabili. Orduan, puxika moduan puztu zuten gaia, eta ikusi genuen emaitza zein izan zen: lehendakariaren adierazpenak, EITBko zuzendariak programa saretik kendu zuen, boikoterako deiak... Garbi dago: hemen adierazpen askatasuna bartzuek bakarrik daukate!



# MARIA LUISA RUIZ DE EGUINO

(I. urteurrena: 2017-III-6)

# JUAN OSÉS BIENZOBAS

(VII. urteurrena: 2011-II-17)

EUREN ALDEKO MEZA EGINGO DA  
MARTXOAREN 6AN (MARTITZENA),  
ARRATSALDEKO 19:00ETAN, SAN ANDRES PARROKIAN.

“Beti nire bihotzean”

NEREA



Datorren martxoaren 7an, eguaztena, Euskararen Transmisioaren Mintegiaren zortzigarren edizioa hartuko du Portaleko Areto Nagusiak. Bertan parte hartuko duten adituen artean Eneko Gorri izango dugu (Angelu, 1983). Eneko Gorri Biarrizko Herriko Etxeko euskara teknikaria da eta Ipar Euskal Herriko egoera ulertzeko giltzak eskainiko ditu (datuak, diskurtso eta paradigma berriak, erronkak...).



## ENEKO GORRI

(Biarritzeko euskara teknikaria):

# “Euskararen alde lan egiteko haizeak alde ditugu”

*- Euskararen Transmisioaren Mintegian izango zara datorren astean. Nola ikusten dituzu era horretako topaketak?*

Euskalgintzako aktibista eta euskara teknikari gisa beharrezkoak ikusten ditut eta inportanteak dira bereziki jendearen arteko jakintza-trukaketa bideratzen baitu. Ipar Euskal Herrian ere horrelako topaketa eta gogoeta momentuak antolatzea amestuko nuke. Uste dut Ipar Euskal Herriak ere baduela zerbait partekatzeko Hego Euskal Herriarekin. Interesgarria litzateke hemen bi aldeetako jendea elkartzea.

*- Euskara teknikaria zara Biarritzen. Zein da euskararen egoera han?*

BAB Baiona-Angelu-Biarritz eremuaz hitz egitea nahiago dut. Oso errealitate konplikatu da, euskararen ezagutza %8koa da, eta erabilera %2koa. Gaur egun haurren %80k ez du euskara ikasten ez eskolan ez familian, eta etorkizunari begira ere datuak nahiko kezgarriak dira. Baina lurralde horretan ere bada duela 50 urte borrokatzen duen jende militantea, ikastolak, gauskolak... badugu nahiko baliabide gure artean gauzak hobetzeko, eta horrek esperantza txiki bat helarazten dit.

*- Zeintzuk dira euskarak dituen erronkak eta lan ildoak?*

Ipar Euskal Herria ere bidegurutze handi batean aurkitzen da, eta bi hankak erabili behar ditugu, instituzioen lana eta euskalgintzarena. Batak bestea gabe ezin du funtzionatu, biak uztartu behar dira. Bi erronka ikusten ditut. Bata da transmisioaren kanalak azkartu egin behar direla, gazte belaualdiak eta helduak euskaldundu behar ditugu eta horretarako erabili behar dugu gaur egun daukagun kontsentsu soziopolitikoak. Ez dakigu hemendik 10 urtera adostasun maila berdina izango dugun. Kontsentsu hori apurtzeko beldurrez, urrats txikiak baino ez ditugu ematen, baina gaur da momentua urrats handiak egiteko. Gaur haizeak alde ditugu, bihar agian ez. Beraz, euskalduntze masiboarentzako ateak irekitzea litzateke lehen urratsa.

*- Eta bigarren erronka?*

Bigarren erronka euskara bigarren mailako hizkuntza izatetik ateratzea litzateke, ahalduntzea, euskaldunak konturatzea funtsean euskaraz aritzen ari direla edozein egoeratan, euskara izan dadila lehen mailako hizkuntza eta bizikidetzara eraikitzeko molde bat. Hau paradigma aldaketa oso

bat da, guk barneratua izan dugulako euskara bigarren mailako hizkuntza bat zela eta modernitatearen faktorea zela frantseza, eta ez euskara. Egoera horri buelta eman behar zaio eta hiztunak kontzientzia hori hartu behar du, bai euskaldunak eta baita erdaldunak ere, eta hor badugu gauza interesgarri bat eraikitzeko bi hizkuntza komunitateen artean.

*- Nola ikusten duzu etorkizuna?*

Momentu klabea da: gazteak euskalduntzen ari dira eskolaren bitartez eta adin duak euskaldundu egin ziren familiaren bitartez. Erdian daudenak ez dira euskaldunak baina euren seme-alabak eskolaren bitartez euskaldundu daitezzen nahi dute. Hemendik 30-50 urtera euskararen egoera ona izango da lortzen baldin badugu gazte hauek euskalduntzea.

*- Ofizialtasun ezak nola eragiten dio euskararen normalizazioari?*

Uste dut ofizialtasuna behar-beharrezkoa dela. Gaur egun alegalitate egoera batean bizi gara, euskara ez da ilegala, baina legala ere ez. Beti da legalitate errepublikanoaren susmo hori eta uste dut nahitanahiez lortu behar dela ofizialtasuna, hor ere badugu zer asmatu.



## ANGEL BASTIDA BASTIDA (2018-II-25)

*“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”*

GURE BASTERRA Soziedadeko kideak





# “Héroes”-en bi saio Antzerki Jardunaldietan

## Martxoaren 2an

“Lorca, la correspondencia personal”  
20:30ean Hezkuntza Esparruan

## Otsailaren 3an

“Héroes”  
20:30ean eta 22:30ean Coliseoan

## Otsailaren 8an

“Los universos paralelos”  
20:30ean Coliseoan

GAUR sentsibilitate handiko lana eszenaratu dute Granadako Histrión Teatrokoek Unibertsitateko Hezkuntza Esparruan. Aurretik ere gure herriko jardunaldietan ibilitako taldeak, “Del maravilloso mundo de los animales: los corderos” lanarekin mundu guztian izandako arrakastaren ondoren, oraingoan Lorca pertsonaiaren inguruko drama dakarkigute. Poetak idatzitakoa eta bizitakoa batzeko gauza izan da Juan Carlos Rubio zuzendaria, bere eskura heldutako korrespondentziari esker. Ordu bete pasa (75 minutu) irauko duen lan horren ondoren, **BIHAR** Héroes lan bikainaren hitzordua izango da. Bikoiztu egin den hitzordua, gainera, jendeak horrela eskatuta hasierako “plana” luzatuko dutelako Txalo Produksioak eta Madrilgo Pentación-ek eskainiko duten lan horrekin. Funtzio baterako sarrerak berehala agortu ziren eta, kontuan izanda iaz aktore bat gaitoxu zelako eskaini beharreko funtzioa bertan behera geratu zela Eibarren, antzezleen hirukoteak ahalegin berezia egin eta bigarren saioa eskainiko dute, 22:30ean hasiko dena. Narruzko Zezenetik sortutako Iñaki Miramón-ekin batera, Juan Gea eta Luis Varela izango dira ia ordu eta erdi irauten duen komedian. Lana, dena dela, aurretik ere programatu zuten Jardunaldien barruan: 2016ko edizioan izan zen, baina orduko hartan Gérald Sibleyras-en lana euskaraz eskaini ziguten, Txalo euskal konpainiaren eskutik. Datorren astea aurrekoak baino askoz lasaiago joango da, lanei dagokionez, eta bihurtik datorren eguenera arte ez da beste lanik izango. Egun horretan, **martxoaren 8an**, Madrilgo beste konpainia batek (PTC) David Lindsay-Abaireren “Los universos



paralelos” eskainiko digu. Ohiko orduan eta ohiko tokian (Coliseoan, 20:30ean) eszenaratu dute Pulitzer saria irabazitako drama hori. Malena Alterio, Juan Carlos Vellido, Carmen Balagué, Belen Cuesta eta Itzan Escamillak osatutako boskoteak, elkarrizketa distiratsuen bitartez, dramari umore puntua eskaintzen dio-



te eta ikuslea itxaropentsu irtetea lortuko dute funtzio amaieran. Jardunaldien ekuadorra gaudituko dugu hiru lan horiekin. Unea izango da azken bi asteetako lan-zaparradarako prestatzeko: 10 lan eskainiko baitira horretan.



## MIREN JAYONE LANDA GABIOLA

2018ko otsailaren 24an hil zen,  
84 urterekin



“Betirako gure bihotzean”  
Zure senideen partez. MAITE ZAITUGU.





**UXUE ALBERDI**  
(idazlea)

**- Nagore Vargasen istorioa kontatzen duzu liburuan. Nolako istorioa du?**

80. hamarkadaren hasieran euskal herri industrial bateko langile auzo batean jaiotako neska da Nagore. Nahiko identitate konplexua dauka hasieratik. Aitararen aldetik Espainiako hegoaldeko etorkinen alaba da, langile-klase eta zapalduen kontzientzia duen familiakoa, politizatua. Ama, bestetik, Euskal Herriko barnealdeko baserri bateko alaba gazteena da eta landa girotik, erlijioaren eta euskal mundutik ihes egiten du. Hiesaren eta heroinaren drama bizi du Nagorek etxean bertan. Gurasoak tabernariak dira eta 80. eta 90. hamarkadak lehen leurretik biziko ditu. Bizi baldintzek eta aitak beragan egiten duen proiektzioak behartuta, bere buruaren irudi oso gogorra eta gotorra eraikiko du, izaera errebelde eta irmoko emakumea bihurtuz. 28 urterekin hiesa diagnostikatuko diote eta bere ahultasunarekin egingo du topo. Ahulta-

## “80. hamarkadak orduko umeoi nola markatu gintuen kontatu nahi nuen”

‘Jenisjoplin’ Uxue Alberdiren bigarren eleberria izango da mintzagai martxoaren 6an 19:00etan Portalean egingo den ‘Irakurlearekin Harixa Emoten’ saioan. Elgoibartarra eroso sentitzen da horrelako solasaldietan, “*liburuak bizirik jarraitzen duela ikusteko balio du*”. Nagore Vargasen eta 80. hamarkadan jaiotakoen memoriak ekarriko dizkigu Alberdik.

suna eta erruduntasuna kudeatu behariko ditu, eta bere identitatea eraikitzen hasi behariko da berriz.

**- 80. hamarkadan jaiotako pertsonaia izanik, ezin alderaketa ekidin. Zer dago Uxue Alberditaz eleberri honetan?**

Asko. Ez naiz Nagore Vargas, baina nik idatzi dut. Elgoibarren jaio nintzen 80. hamarkadan eta Nagoreren pertsonaiaren bitartez islatu nahi nituen hainbat gai zeuden. Adibidez, sasoi horretako egoera sozial eta politikoak orduko ume eta nerabeoi nola markatu eta eragin gintuen. Bestetik, zure burua ahultasunetik berreraikitzea zer den ere jorratu nahi nuen, batez ere zure buruari ez diozunean ahultasunik baimendu izan.

**- Eta zer dago Janis Joplinetaz?**

Aitak alabari jartzen dion ezizena da ‘Jenisjoplin’. Aitak zein emakume eta bizitza mota idealizatzen dituen islatzen du goitzenak. Pertsonalki beti eman dit atentzia benetako Janis Joplinek. Asko

gustatzen zait bere ume aurpegi borobila eta, era berean, daukan indarra, eta izaera errebelde, indartsu, kartsu eta eutsigabea. Nagoreren arima ondo harraipatzen du irudi horrek.

**- Liburuan gai sakonak lantzen dituzu, baina estilo arinarekin. Erronka handia izan da idazle moduan?**

Auto estetikoak eta estilokoak bat dira beti eta, estiloa definitzearen inguruan, nola kontatu bada zer kontatu. Literaturak funtzionatzeko sei gako berreskuratu zituen Italo Calvinok eta arintasuna zen horietako bat. Literaturak funtzionatuko badu, oreka bat egon behar da bizitzaren pisuaren eta hitzen arintasunaren artean bere ustez. Istori honetan pisu handiko elementuak ikusten ditut, berunak bezala behera eramaten gaituztenak, eta erritmoaren eta hitzen bitartez irakurlea eta pertsonaiak beste arintasun batekin eramaten saiatu naiz.

## Einer Rodriguezen argazki-erakusketa zabalduko dute Untzagako jubilatuek etxean

Martxoaren 8an, 19:30ean zabalduko dute Einer Rodriguezen argazki erakusketa Untzagako jubilatuek etxean. Martxoaren 25era arte egongo da ikustera joateko aukera, astelehenetik barixakura 20:00etik 21:30era eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



## Kepa Sarasola da UEUko zuzendari berria

**Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) zuzendari berria izendatu zuen zapatuan:** Kepa Sarasola Gabiola (Begoña, 1958). Zientzia Fisikoetan lizentziatua, doktore informatikan, UPV/EHUko informatika irakaslea eta euskararen prozesamendu automatikoa lantzen duen Ixa Taldearen sortzaileetako bat da. 1980. urtetik dihardu UEUn lanean, eginkizun desberdinetan eta kargu berriari ilusioz heldu dio. Bestalde, UEUn helburuak eta ekarpena ezagutzera emateko dokumentala egin dute, hainbat kideren ahotik. Interneten, UEUn Youtube kanalean ikus daiteke dokumentala.





## Tailerren inguruko hainbat testigantza bildu eta interneten ipini dituzte

Ego Ibarra batzordeak iaz abian jarritako "Biharraren memoria" osatzen lagunduko duten hainbat lekukotasun jaso eta sarean jarri dituzte. Eibarko tailer ezberdinetan jardundako lagun hauen testigantzak jaso dituzte Ego Ibarren web orrian, Eibartarren Ahotan atalean: Manuel Estanislao eta Enrique Sagalá (Trust), Julian Azkarraga (Alfa), Inazio Agirrebeña (Laster), Oswaldo Gabilondo (Vicente Gabilondo e hijos), Adela Telleria (Aurrera), Antonio Fernández de Roitegui (Gaspar Arizaga), Maria Jose Irusta, Josefina Prieto, María Garcia, Plácido Carmona, M<sup>o</sup> Angeles Cortaberria eta Angela Lorenzo (Boj), Jose Currillo eta Roberto Ibañez.



## Domeka goiza taloak egiten pasa zuten berbalagunek

Taloak egiten ikasteko ikastaroa antolatuta zuten joan zen domekan ...eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan programetako kideentzat, eta baita jakimin handia piztu ere, talde polita elkartu zen-eta Portaleko sukaldean. Haur eta helduek primeran pasa zuten arto-irinez egindako masa egiten lehenengo eta taloak betetzen eta jaten gero. Aukera ere ez zen makala izan, talo gazi zein gozoak probatu zituztelako, txorixo, hirugihar eta txokolatetz betetakoak prestatu eta jan zituzten.

## Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Cielito Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseo antzokian. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian pieza hauek joko dituzte: "La Primitiva" (pasodoblea, J. Penders), "Aires Vascos n<sup>o</sup>1" (herrikoia, J. Franco), "Sedona" (obertura, S. Reineke), "Katuska" (aukeraketa, P. Sorozabal) eta "West Side Story" (aukeraketa, L. Bernstein).



## "Tosca" opera bihar Coliseoan

Giacomo Pucciniren operaren proiektzioa diferituan ikusteko aukera izango da bihar Coliseoan, Londreseko Royal Opera Husetik. Hiru ordu eta 10 minutuko iraupena duenez, arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Interpretazioa Adrienne Pieczonka, Joseph Calleja eta Gerald Finleyren esku dago, Jonathan Kent-en zuzendaritzapean. Dan Ettinger da, bestalde, orkestra-zuzendaria.

## "Nola aldatu diren gauzak, kamarada" mahai-ingurua bideoan

Euskarari buruzko gogoeta eta bizipen interesgarriak entzuteko aukera bikaina izan zen aurreko astean Portalean egindako "Nola aldatu diren gauzak, kamarada!" izenburuko mahai-inguruan. Saioa Hamaika Berbaldi ekimenaren barruan Eibarren AKEBAIk antolatuta egin zen eta gerturatu zen jendea oso gustora egon zen, ordu eta erdiko saioan kontatutako hamaika pasadizoak entzuten. Joateko aukerarik izan ez bazenuten edo joan arren mahai-inguruan esandakoak berriz entzun nahi izanez gero interneten aukera daukazue, akebai.eus helbidean zein Youtubeko kanalean mahai-inguruaren grabazioaren bideoa ikusgai ipini dute-eta.

I. URTEMUGA

**JOSEBA ZINKUNEGI GARMENDIA**

(2017-02-26)

*Zenbat egiteko / eta zenbat bizitzeko,  
zure irribarrea / eta maitasuna / gure bihotzetan betiko.*

ETXEKOAK





IÑAKI UGARTEBURU

## Erakunde publikoen etorkizuna

XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan, autonomia-estatutuaren garapenarekin batera, Eusko Jauriritzan, foru aldundietan eta udaletan langile asko sartu ginen. Aurretik ematen ziren

zerbitzuei (hirigintza, obrak, segurtasuna-udaltzaingoa, dirubilketa, etab.), gehitu egin zitzaizkien hezkuntza, euskara, kultura, kirola, gazteria, gizarte eta osasun zerbitzuak...

Orokorrean nahiko fama txarra izan dugu funtzionariok, baina nik, behin baino gehiagotan, lagunen arteko bazkari zein afarrietan, behargin publikoen lana defenditu dut, nire ustez orokorrean kalitatezko zerbitzu publikoak ditugulako, eta nik ikusi ditudan langile gehienen partetik inplikazio-maila altua izan delako. Eta ia konturatu barik, lan-bizitzaren zati nagusia pasatu zait eta nire burua ikusten dut sarri lagunen artean jubilatzaioz berba egiten. Bihargin publiko asko jubilatzen hasita daude, eta prozesuak hasi besterik ez du egin.

Ditxosozko krisia ahaztuztat ematekotan gaude, eta lan-eskaintza publikoak ugaritzen hasi dira; Osakidetzan, Hezkuntzan, Ertzaintzan, aldundietan zein udaletan lan-eskaintza garrantzitsuak egiten ari dira. Eta nik kezka handia darabilt buruan: Zein motatako zerbitzu publikoak behar izango ditugu etorkizunean? Zenbat lagun eta zer funtzio bete behar izango dituzte? Gizartearen geldiezinako bilakaera, informatika, ekonomiaren garapena, jaiotze-tasa eta abar kontuan izanik, erronka berriei aurre egin beharko diete etorkizuneko erakunde publikoetatik, eta horretarako HAUSNARKETA SAKONA BEHAR-BEHARREZKOA DELA USTE DUT, kalitatezko eta neurritzko zerbitzuak izateko.


Beharbada, nik horren berririk izan gabe badihardute zerbitzu publikoen etorkizuna planifikatzen... Ea hala den!

## Liburu aurkezpena antolatu du liburutegiak martitzenerako

Juan San Martín liburutegiak antolatuta, datorren martitzenean "Secuelas de nuestras guerras y derrotas: de la República a la "modélica" democracia" liburua aurkeztuko du egileak, Josemaría del Palacio Alonsok. Egilearen berbetan, "liburuak gaur egungo krisiaren jatorria aztertzen duen oroitzapena arakutzen du".

Josemaría del Palacio Alonso (Aretxabaleta, 1948) Mondragon kooperatibetako tekniko erretiratu da, "nahitaezko etorkinen semea". Militante komunista, diktaduratik de-

mokraziarako trantsizioa bizitzea tokatu zitzaion eta, prozesu hori gure gizarterako erabakigarria izan dela iruditzen zaionez, datorren astean aurkeztuko duen lanean horren berri ematen du. Liburu honekin, 2009an Cándido Ruiz Gonzálezekin elkarlanean idatzitako "Matando sueños, sembrando miedos. Morales de Toro, 1936..." liburuan hasitako ikerketa historikoari jarraipena eman dio egileak. Liburuak 8 urteko ikerketa-lanaren emaitza da eta 503 orrialdetan XX. mendeari errepa-soa eman dio idazleak, bere



gurasoen biografietatik abiatuta. Portaleko areto nagusian izango da aurkezpena, 19:00etan, eta egileak Asier Ezenaroren laguntza izango du.

## "Itsaspeko bihotzak areto literarioa" erakusketa hartuko du Portaleak

Eguaztenetik aurrera "Itsaspeko bihotzak areto literarioa" izeneko hartuko du Portaleko erakusketa aretoak. Galtzagorri elkarteak diseinatutako proiektuan genero berdintasunaren gaia lantzen da, euskarazko haur literaturaren bitartez. Ilbidea artistiko-pedagogiko honetan haur literaturari tarte berezia eskaini arren, beste arte adierazpen batzuei ere



(ilustrazioa, jostungintza, artisauntza, ikus-entzunezkoak...) erreparatu diote. Berez LHko 4. mailako haurrek bisita gidatuak egin ditzaten pentsatuta dago erakusketa, baina eskola-bisitetatik kanpora nahi duenak ikusteko aukera izango du martxoaren 15era arte, ohiko ordutegian (martitzenetik domekara, 18:30etatik 20:30era).

## Zabalik dago e-berba lehiaketako proposamenei botoa emateko epea

Eibarko AEK-k, Udal Euskaltegiak eta Euskara Zerbitzuak antolatutako e-berba lehiaketarako proposamenak jasotzeko epea amaituta, aurkeztutako artean gehien gustatzen zaizuenari botoa emateko aukera daukazue orain. 33 lagunek hartu dute parte lehiaketan eta guztira 150 proposamen jaso dituzte antolatzaileek eta, berba zerrendari begiratuz gero, lehiakideei irudimenik ez zaiela falta begibistakoa da. Proposatutako berbak ikusteko eta botoa emateko [www.eibarko-euskara.eus](http://www.eibarko-euskara.eus) webgunera sartu behar da eta botoa emateko epea martxoaren 11n amaituko da. Bi sari emango dituzte antolatzaileek, epai-mahaiarena eta jendearen boto gehien jaso dituenarena.





### Kukai Dantza konpainiaren "Oskara" ERMUAN

Gaur gauean, 22:15ean aurkeztuko du Kukai Dantza konpainiak 'Oskara' ikuskizuna Ermua Antzokian. Lanak Marcos Morauren ideia eta koreografiari jarraitzen die eta zuzendaria Jon Maya Sein da. Taula gainean jardungo duten dantzariak, berriz, Alain Maya, Ibon Huarte, Martxel Rodríguez eta Urko Mitxelena dira. "Oskara" film dokumental bat da. Istorioa Marcos Morau, Valentiako koreografo berritzailearen eta Kukai Dantza, Euskal Herriko dantza tradizional taldearen arteko harremanetik sortzen da eta emaitza elkarrekin diseinatutako ikuskizun harrigarria da. Sarrerak 10 euro balio du.



### MENDAROKO Aingeru Guardako jaixak

Eguenean mezarekin hasitako Mendaroko Aingeru Guardako Jaixak domekan izango du egun handia, euskal tradizioz jositako jardunaldian: 11:45 herri kirolen erakustaldia egingo da, eta trikitilari zein bertsolariek goizaldea ederto girotuko dute. 12:30ean meza nagusia egingo da eta, ondoren, berriz trikitilari eta bertsolarien txanda izango da.

### eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

### hildakoak

- Pascual Alonso Prada. 90 urte. 2018-II-8.
- Josefina Vizuete Rico. 78 urte. 2018-II-23.
- M<sup>a</sup> Iciar Arginberri Elorriaga. 92 urte. 2018-II-24.
- Alejandrina Ibañez Riaño. 89 urte. 2018-II-24.
- Miren Jaione Landa Gabiola. 84 urte. 2018-II-24.
- Angel Bastida Bastida. 65 urte. 2018-II-25.
- Clara Arizmendi Garate. 88 urte. 2018-II-27.
- Alejandra Urkia Gorrotxategi. 94 urte. 2018-II-28.

### jaiotakoak

- Zayd Belaziz. 2018-II-20.
- Ibai Aristondo Cardona. 2018-II-21.
- Fatima Waqar. 2018-II-21.

### farmaziak

- Barixakua 2  
EGUNEZ Lökunberri (Isasi, 31)
- Zapatua 3  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Domeka 4  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 5  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Martitzena 6  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguaztena 7  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 8  
EGUNEZ Czulueta (San Agustin, 5)
- Barixakua 9  
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI -2018AN-  
**Lafuente** (Sostoatarren, 10)

### SUDOKUA

AURREKOAREN  
 EMAITZA

2	6	3	8	5	9	4	1	7
9	1	5	4	3	7	6	8	2
4	8	7	2	6	1	3	5	9
6	3	1	5	9	2	7	4	8
7	9	4	3	1	8	2	6	5
8	5	2	6	7	4	9	3	1
1	2	6	9	8	3	5	7	4
3	4	8	7	2	5	1	9	6
5	7	9	1	4	6	8	2	3

				1	8			9
		3						1
	1		6	7				
		4	7	8				3
	2	7				9	4	
6				9	3	5		
				3	7		9	
7						4		
9			5	2				

### telefono

### jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udalizaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 2

### ZINE-FORUMA

**19:00.** *“Criadas y señoras”*. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Portalean.

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**20:30.** *“Lorca. La correspondencia personal”* (Histrión Teatro – Granada). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparruan.

## Zapatua 3

### ASTELENA HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

### EIBARKO 27. DUATLOIA

**16:45.** Emakumezkoen irteera. Handik 3 minutura gizonetzkoena. Boxeak Untzagan. Eibarko Triatloi Taldeak antolatuta.

### ESKULANAK

**17:30.** Umeendako tailerra (Pitiflú), doan. El Corte Inglésan (ekitaldi aretoan).

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**20:30 eta 22:30.** *“Héroes”* (Txalo Produzioak-Pentación). Coliseoan.

## Domeka 4

### KONTZERTUA

**12:30.** Eibarko Cielito Musika Banda. Coliseoan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

## Astelehena 5

### IKASTEN

**16:00.** Landareen Foroa: Sahatsa, askimotz edo arrosario-belarra eta oreganoa. Portalean.

### BIDEO-FORUMA

**18:30.** Emakumeen Istorioak: Teresa de Jesus. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta.

## Martitzena 6

### IKASTEN

**10:00.** *“Zarzuela: jatorria eta bilakaera”* hitzaldia, Marina Lertxundi, Donostiako Ekintza ikastolako musika irakaslearen eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Punto-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### MENDI JARDUNALDIK

**19:00.** *“Aurrera”* (Mikel Peña), *“The frozen road”* (Ben Page) eta *“Mountain”* (Jennifer Peedom). Mendi Tour Eibar 2018 - Bilbao Mendi Film Festival. 5 euro. Coliseoan.

### LIBURU-AURKEZPENEA

**19:00.** *“Secuelas de nuestras guerras y derrotas: de la República a la ‘modélica’ democracia”*, Josemaria del Palacio Alonsoren liburua. Portalean.

### HARIXA EMOTEN

**19:00.** *“Idazlearekin Harixa Emoten”* irakurle taldearen saioa, Uxue Alberdiren *“Jenisjoplin”* nobelaren inguruan. Portalean (Kulturako 3. batzartokian).

## Eguaztena 7

### MINGEGIA

**09:00/14:30.** VIII. Euskararen Transmisioa Mingegia. Portalean.

### IKASTEN

**09:15.** Ibilaldia: Landa – Legutio. Autobusa Ego-Gainetik irtengo da.

### MENDI JARDUNALDIK

**19:00.** *“Where the wild things play”* (Krystle Wright) eta *“Dirtbag: The Legend of Fred Beckey”* (Dave O’Leske). Mendi Tour Eibar 2018 - Bilbao Mendi Film Festival. 5 euro. Coliseoan.



### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 8

### IKASTEN

**10:00.** *“Volar”* film-dokumentalaren emanaldia. Armeria Eskolan.

### GREBA FEMINISTA

**11:00.** Pikete informatibo feministak.  
**12:30.** Kontzentrazioa.  
**15:00.** Material prestaketa.  
**18:00.** Emakumeok kalera!  
**19:30.** Kazerolada (Untzagatik abiatuta).  
**22:00.** Bukaera jaialdia. Eibarko mugimendu feministak antolatuta. Untzagan.

### KALEETAN KANTUZ

**17:00.** Dantza (beheko maila).  
**18:00.** Dantza (maila altua).  
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ODOL-EMATEA

**18:30.** Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

### INAUGURAZIOA

**19:30.** Einer Rodriguezen argazki erakusketa, Eibarko emakumeen omenez. Untzagako jubilatutxuean.

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**20:30.** *“Los universos paralelos”* (PTC – Madrid). Coliseoan.

## Erakusketak

### Martxoaren 4ra arte:

– *“CUESTION DE TIEMPO”* JOSE IBARROLAREN ERAKUSKETA. (Portalean)


### Martxoaren 7tik 15era:

– *“ITSASPEKO BIHOTZAK”*, GENERO BERDINTASUNA ETA HEZKIDETZA LANTZEKO ERAKUSKETA. (Portalean)


### Martxoaren 8tik 25era:

– EINER RODRIGUEZEN ARGAZKI ERAKUSKETA. (Untzagako Jubilatutxuean)

**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, ENARA, gaur urtiak betetzen dozuz-eta! 11 patxo potolo aitta, ama, Eneko eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON, martitzenian 3 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu pilla bat danon eta, batez be, Maialenen partez.




Zorionak, AIORA, gure etxeko bateria-jolia, etzi 9 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat aitatxo, amatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, ANE, martxuaren 5ian 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat Eibarko aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, ANE!!!, martitzenian 8 urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, ASIER, gaur 3 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat Edurne, Xabat, Urko, Etxahun eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKI, atzo 9 urte bete zenduaz-en-eta. Etxeko guztion partez.



Zorionak, JARE, domekan 2 urtetxo beteko dozuz-eta. Musu asko famelixa guztiaren partez.




Aupa, ENEKO, gaur 12 urte egin dozuz-eta. Zorionak eta segi horrela. Famelixaren partez.



Zorionak, JON, etzi 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AMETZ, bixar 8 urte egingo dozuzelako. Laztan haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak eta urte askotarako, bikote!! BEÑATEK 9 urte eta MAIALENEK 12. Segi beti bezain jator. Musu potolo bana famelixaren partetik.

Zorionak, AITOR (domekan 7 urte egingo dozuz) eta GARI (aurreko domekan 4 bete zenduaz-en). Musu haundi bat bixori, famelixaren partez.



## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**3an: 17:00, 19,45, 22:30**

**4an: 17:00, 20:00 (antzokia)**

**5ean: 20:30 (antzokia)**

**"Errementari"**

Zuzendaria: Raul Urkijo



**(2 ARETOAN)**

**3an: 22:30**

**4an: 17:00, 20:00**

**5ean: 20:30**

**"Black Panther"**

Zuzendaria: Ryan Coogler



**(1 ARETOAN)**

**4an: 20,00**

**5ean: 20:30**

**"Handia"**

Zuzendaria: Jon Garaño



**(ANTZOKIAN)**

**3an: 17:00 (2 aretoa)**

**4an: 17:00**

**"La isla de los monstruos"**

Zuzendaria: Leopoldo Aguilar





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai Elgetan. 3 logela, sukaldelagela, 2 komun, despentsa, ganbara eta terraza. Teilatua, fatxada eta leiho berriak. Kalefakzioa. Tel. 695-743398.
- Baseria salgai Mutriku, terrenoarekin. Tel. 676-420846.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroarekin. Jantzita. Bizitzera sarzteko moduan. Tel. 600-752732.

### 1.2. Errentan

- Pisia, edo logela, hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-299869.
- Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 605-363870.
- Amañan estudioa edo logela (sukaldea erabiltzeko eskubidearekin) hartuko nuke alokairuan. Tel. 674-277661. Cristina.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 674-930223.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai J.A. Gisasola kalean (San Pion), kale mailan. Tel. 610-405146.

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai Ubitxan. 70 m<sup>2</sup> eta 150 m<sup>2</sup>. Bulego, biltegi edo tailer txikiarentzat aproposa. Kalerako irteera zuzenarekin. Tel. 617-688311.
- Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.
- 33 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Guztiz jantzita. 460 euro, negoziagarriak. Urtebeterako gutxienez (hiru hilabete doan). Tel. 688-678934.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo tabernetan jarduteko. Tel. 633-101852.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta animaliak ateratzeko. Esperientzia. Tel. 642-827097.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-389301.
- Neska eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 652-668877.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Esperientzia. Tel. 603-406827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-297089.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-506763.

- Mutila eskaintzen da etxeak edo pisuak konpontzeko edo margotzeko. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Erreferentziak. Tel. 600-840833.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 628-529252.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo baserrian jarduteko. Tel. 674-579736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-316890.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-406177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Mendaroko ospitalean. Tel. 654-940720.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-127874.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 603-660175.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-687362.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez ere. Tel. 642-650900.
- Gizona eskaintzen da igeltsero eta pintore lanetarako. Tel. 642-650816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-549177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-251395.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 600-099460.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 675-807600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 602-856031.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-345286.
- Emakumea eskaintzen da etxeetan lan egiteko. Interna. Tel. 688-865466.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 654-590098.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-473324.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-878302.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-552207.
- Neska eskaintzen da arratsaldez etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 627-819217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 695-144954.
- Emakumea eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 634-446252.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-963899.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-999079.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-130120.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-897639.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 687-103913.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 602-172650.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 627-167617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 603-683176.

## 4.2. Langile bila

- Gizona behar da asteburuetan eta jai-egunetan alzheimerria duen nagusia zaintzeko. Tel. 633-364377. Laura.
- Kamarera/o behar da taberna baterako. Esperientziarekin. Tel. 620-246953.
- Bertako emakumea behar da larunbat eguerditik igande gauera eta baita jaiegun batzuetan emakume bat zaintzeko. Tel. 605-708393. Leire.
- Pertsona behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 11:00etara. Izena emateko: umezainketa@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- 0'90eko sukaldea salgai, gas-bonbonak eramatekoarekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Fondue salgai sukaldatzeko. Erabili gabe. 30 euro. Tel. 943-120030.
- Zukugailua salgai. Philips "Quick Cleau". Berria. 40 euro. Tel. 943-120030.


### 6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen ditut, ezin ditudalako zaindu. Hiru hilabetekoak. Tel. 722-222338.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko barixakuan Pupu panpina aurkitu nuen San Andres eliza inguruti. Tel. 605-759774.

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



# Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

**EKAINEKO DEIALDIA AZTERKETAK**  
Eibar, Arraste, Durango, Bilbo eta Markinan

**MATRIKULAK**  
Martxoaren 1etik 22ra

AZTERKETA DATAK	
<b>STARTERS</b> .....	Ekainaren 9an (larunbata) AZTERKETA OSOA
<b>MOVERS</b> .....	Ekainaren 9an (larunbata) AZTERKETA OSOA
<b>FLYERS</b> .....	Ekainaren 9an (larunbata) AZTERKETA OSOA
<b>KET (FOR SCHOOLS)</b> .....	(PAPERS 1,2) Ekainaren 2an (larunbata) ..... (SPEAKING) Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra arte
<b>PET (FOR SCHOOLS)</b> .....	(PAPERS 1,2) Ekainaren 2an (larunbata) ..... (SPEAKING) Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra arte
<b>FCE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 9an (larunbata) ..... (SPEAKING) Ekainaren 6tik 10era arte
<b>CAE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 2an (larunbata) ..... (SPEAKING) Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra arte
<b>CPE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 14an (osteguna) ..... (SPEAKING) Ekainaren 8tik 17ra arte
<b>PET</b> .....	(PAPERS 1,2,) Maiatzaren 25ean (ostirala) ..... (SPEAKING) Maiatzaren 18tik 27ra arte
<b>FCE FS</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 9an (larunbata) ..... (SPEAKING) Ekainaren 1etik 10era arte
<b>FCE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 23an (larunbata) ..... (SPEAKING) Ekainaren 15etik 24ra arte
<b>CAE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 23an (larunbata) ..... (SPEAKING) Ekainaren 15etik 24ra arte

## INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

**ARRASATE:** Parlance .....943 77 06 83  
Idiomaster .....943 79 07 84

**BERGARA:** Espolon School of English .....943 76 03 53

**BILBO:** Capital Languages .....94 445 73 04

**EIBAR:** Link Idiomias .....943 20 39 59  
Target .....943 20 01 08  
Akerlei .....943 17 66 32

**ERMUA:** Kensington School of English ..943 74 02 36

**ELGOIBAR:** Key Academia de Inglés .....943 74 30 44  
Sounds Great .....943 78 20 91

**DEBA:** Akabi .....943 19 16 79  
North Street English .....652 44 86 46

**DURANGO:** Maristak Ikastetxea .....94 681 00 58

**MENDARO:** Akabi .....943 75 50 55

**MARKINA:** Chatterbox .....94 616 96 39  
Lea Artibai Ikastetxea .....94 616 90 02  
Ontrack Hizkuntza .....94 658 46 73  
Speak up .....94 622 52 94

**ELORRIO:** Golden Gate .....943 86 50 20

**BERRIZ:** Gogoz .....943 60 43 58

**ZUMAIA:**

**MUTRIKU:**

**Berbetan** Euskeraz hitz egiteko lotsa gainditu nahi duzue?

Ahozko euskera hobetu nahi duzue?

Hemen aukera:

- parkean
- kirola egiten
- taberna batean...

Zuk aukeratu non eta noiz  
Taldea jatorrak eta giro informala

Doan!

Informazioa: 943 20 09 18

Eta euskalduna bazara eta praktikatzen nahi duenari lagundu nahi badiozu eman izena zuk ere!



J. Etxeberria, 5 943 03 08 35

## Datorren asteko eskaintzak:



Behi-txuleta



Burualde-txuleta



Solomo freskoa



Oilasko bularra



Oilasko izter betea



Saiheski adobatua



Txerri-txuleta



Solomo adobatua



Oilasko izterra



Laberako ukondoa



## OKINDEGIA



## KAFETEGIA

## Asteazkena

KAFE-EGUNA 1,15€

## Egunero

KAFE+TOSTADA 2,30€

ZUKU NATURALA+KAFE+TOSTADA

3,80€

BAGUETTE 0,70€



J. Etxeberria, 5

943 10 41 46 / 649 26 06 62



J. Etxeberria, 5  
648 264 371

## Kantabrikoko arrain onena prezio freskoenean



Skrey bakailaoa

9'90€/kg

Legatz ertaina

5'90€/kg

Txipiroia

9'90€/kg

Itsas-oilarra

7'90€/kg

Basa-lubina

9'90€/kg

Mihi-arraina (lenguado)

12'90€/kg

Urraburua (dorada)

9'90€/kg

Itsas-zapoa

9'90€/kg

GALIZIAKO Muskuihua

2'90€/kg

Bakailao-xerra

10'90€/kg